# ttipi-ttapa

TOKIKOM

2013ko urtarrilaren 31 | XXXIII. urtea | **583**. zenbakia

www.ttipi.net




Mikel IRIARTE

Baztandarren Biltzarrak 50 urte ➜ 3

**Inauteriak** ➜ 25/36
Egitarauak, elkarrizketak…

**BERA** ➜ 10
Ordutegia jarri diote futbol zelaiari eta frontoiari

**ITUREN** ➜ 20
Denbora bankua martxan jarri du Trukerrekak

**GOIZUETA** ➜ 25
Karnabala girotzeko datoz Santa Ageda eta Kalderero

**BAZTAN** ➜ 41
San Antongo aretzearen jabea ez da agertu



# Haur eta heldu inauteri giroan

Herri batzuetan ospatu berria eta gainerakoetan egiteko punttuan, ohitura ikusgarri eta berezko pertsonajez *bestitua* dator aurten ere.

Argazki hau Amaiurren ateria da, *egun ttun ttun* egunean.

**Ezinduak laguntzen, erreskatean, artzainekin…**

## Konpainiaz haratago, gizakiarekin lanean trebeak diren txakurrak

Keinu edo hitz bat nahikoa dute agindua ulertu eta lanean hasteko. Txakur bereziak dira, lau hankako heroiak, egunerokoan bidelagunak edo lehiaketetan txapeldunak. ERREPORTAJEA ➜ 4-5



ARGAZKIA: ONDIKOL

**Udaberrian hasiko da lanean Bidasoaldeko hondakinak bildu eta trinkotuko dituen transferentziagunea** ➜ 18

ZOZKETAK ➜ 49




Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora


www.cajanavarra.com

ttipi-ttapa fundazioak zure laguntza behar du

Proiektu zk: 50063

Nafarroan erroldatutako 18 urtetik gorako guztiek parte har dezakete

ZUK AUKERATU ZUK ERABAKI 2013


ELIZONDOKO ESKOLA PUBLIKOA
San Francisco Javier
Proiektuen bidez lan egiten dugu.
Trabajamos a través de proyectos.
Matrikulatzeko epea:
Otsailaren 1etik 8ra
Plazo de matriculación:
del 1 al 8 de febrero
Eskola publikoa aurrerantz!!!


BERAKO AGENDA
otsaila
2 larunbata
KALDERERKOAK
19:00 - Illekuetatik Herriko etxeko plazara
*Prest egon ordu erdi lehenago
Ibilbidea: Illekueta - Altzate - Legia - Zahar etxea
Eztegara - Iturlandeta - Eztegara - Bidasoa karrika
San Esteban karrika - Herriko etxea
Oharra: Eguraldi txarra eginez gero, eskolako frontoian
6 asteazkena
INAUTERI BESTA
16:45 - Kalejira Beran barna, zahar etxea bisitatuz
Oharra: Hau guztia eguraldi txarra egiten ez badu
Ondotik entzunaldia, mozorro lehiaketa eta berendua Musika Eskolan
Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Musika Eskola
7 ortzeguna
ORTZEGUN GIZENA
15:45 - Suhiltzaileen Parketik Eztegara pilotalekura
Oharra: Eguraldi txarra eginez gero, Eztegara pilotalekuan 16:00etan
Ondotik POTTOKA TALDEA
16:30etan Eztegara pilotalekuan
10 igandea
INUDEAK ETA ARTZAIAK
10:00etatik aintzinera goiz osoan herrian barna Eztegara pilotalekutik hasita
18:00 - Eztegara pilotalekutik Altzateko karrikara
11 astelehena
INAUTERIETAKO ASTELEHENA
Goizean zehar zingar-arrautzea
19:00-20:00 - TXARANTUKADA
Massaranduba Taldearekin Altzateko karrikan
23 larunbata
HAUR IKUSKIZUNA:
Tatxin eta Tatxan pailazoak
2-9 urte bitartekoentzat
17:00 Kultur etxea - Sarrera: 5 €
23 larunbata
BERA KANTARI
19:00 - Illekuetan
Antolatzaileak: Berako Udala; Berako Kultur Batzordea eta Gure Txokoa
Laguntzaileak: Berako Musika Banda; Labiaga Ikastola; Jesusen Bihotza Ikastetxea; Ricardo Baroja Ikastetxea eta Toki-Ona Institutua; Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola
Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonoan edo www.berakoudala.net

Baztandarren Biltzarrak mende erdia bete du aurten. Bestarekin lotzen dute batzuek izen hori, baina hurbiletik bizi dutenek besta baino askoz gehiago irakurtzen dute hitz horien atzean. Mikel Iriarte da horietako bat. Baztandarren Biltzarreko zuzendari kargua bete zuen zortzi urtez. Iragana, oraina eta etorkizuna izan ditugu hizpide. Eguna ez ospatzeko mamua sarritan inguruan ibili bada ere, «jendea gauza guztien gainetik inplikatu» dela dio. Bere ustez, oinarrizkoena lortu da, «bazegoen eta badago aitzinerat segitzeko gogoa».

**Mikel IRIARTE** | Baztandarren Biltzarreko kidea

# «Krisi ekonomikoak baino gehiago kezkatzen nau erreleborik ez egoteak»

E. IRAOLA

**Zein da 50. urteurrenera iristeko sekretua?**
Aunitz urte dira, baina pentsatzen dut erreleboak izan direlako iritsi dela kopuru honetara. Bidean aunitz gora behera eta gertaera izan dira. Garai desberdinak bizi izan ditugu, batzuk nahiko larriak ere bai. Baina nonbait jendea gauza guztien gainetik inplikatu egin da. Bazegoen eta badago nahia honekin aitzinerat segitzeko.Egun berezia da. Erreferente bat izan da aunitzendako eta oraindik ere garai batean etortzen zen jendea etorri egiten da. Agian, lorpen bat bezala ere gogoratzen da.

**Antolaketa egiteko modua aldatu da?**
Baztandarren Biltzarra hasiera batean egun bakarrera mugatzen zen baina urteekin elkartearen beharra ikusi eta sortu zen. Hasierako urteetan oztopo aunitzi egin behar izan zitzaion aurre. Udalek lagundu beharrean trabak jartzen zizkizuten, fabore eske joan beharra izaten zen eta horrela ere ez zen behar zen laguntza lortzen.Denborarekin instituzioetan ere eboluzio bat egon da eta orain normalizatua dago eta laguntza ere eskaintzen dute. Elkartearen antolakuntzan berriz, generazio desberdinetako jendea ibili da. Gaur egun jende nahiko gaztea da hor dabilena, nahi edo behar adina ere ez. Jende falta dagoela diote. Garai errazak bizi izan ditugu. Jendeak nahiago izan du besta egin lanean aritzea baino.


UTZITAKO ARGAZKIA
Mikel Iriarte, zortzi urtez Baztandarren Biltzarra elkarteko zuzendaria izan zen.

**Egunak berak jasan du aldaketarik?**
Gehiegi ez da aldatu egitaraua. Orgen apaingarriak egiten dira, herri bakoitzak berea eramaten du urtero, hasieratik gainera eta horrekin batera herri bazkaria ere egiten da bai.Garai batean ia ia orga denek izaten zuten gai tradizionalen bat. Aldarrikapenak ere ez ziren falta izan, 80. hamarkadan gehienbat. Gaur egun denetarik dago, baina lehengo aldean, aunitz indar hartu du antzerkiak. Ez da bakarrik gauza estatiko bat. Jendearen parte hartzea bultzatu eta pasarteak kontatzen dira. Horrek bizitasun handia ematen du. Nik uste hori jendeak baloratzen duela.

> ETORKIZUNA
>
> «Garai batean Baztango jarduera kultural, politiko eta sozial guztiak Baztandarren Elkartearen eskutik egiten ziren eta orain guztia alderantziz da. Hainbat eta hainbat talde daude eta bakoitzak bere aldetik egiten du lan. Elkarrekin harremanetan jarri eta koordinazio lanak egin behar dituztela iruditzen zait. Zentroak Baztandarren Biltzarra behar luke izan»

**Garai zailak izan ditu, etorkizuna nola ikusten duzu?**
Krisi ekonomikoak baino gehiago kezkatzen nau, erreleborik ez egoteak. Hori ez gertatzeko berrantolaketa bat beharrezkoa da. 50 urtez iraun dugu eta orain elkarteari zer eskatzen diogun planteatu beharko litzatekeela uste dut. Nola izan behar lukeen, nola funtzionatu... garai batean Baztango jarduera kultural, politiko eta sozial guztiak Baztandarren Elkartearen eskutik egiten ziren eta orain guztia alderantziz da. Hainbat eta hainbat talde daude eta bakoitzak bere aldetik egiten du lan. Elkarrekin harremanetan jarri eta koordinazio lanak egin behar dituztela iruditzen zait. Zentroak Baztandarren Biltzarra behar luke izan.

**50. urteurrena dela eta zer antolatu da?**
Urteurrena ospatzeko proposamen desberdinak ari dira lantzen. Asmoetako bat da herri bakoitzean ekitaldi desberdinak egitea. Horrela uztailera iristen garenerako herri guztietan girotzeko eta urteurrena ospatzeko zerbait egina egonen da.

**Baztandarren Biltzarrean egon ez denari zer erran?**
Animatu eta etortzeko. Bailara euskaltzale batera etorriko dela eta bertako jendea ezagutuko duela. Aunitzetan Baztandarrak tuku-tuku izatearen fama dugu. Etortzen badira ikusiko dute ez garela horrela eta badugula zer konta.







**ERRESKATEAK**

**«Pasa den urtean 16 erreskatetan hartu genuen parte. Normalean perretxiko bila irten eta galdu diren mendizaleak edo alzheimerra duten gaixoak erreskatatzen ditugu».**

Esther GARROTE
Nafarroako erreskate zakurren taldeko zuzendaria

**ESKARIAK**

**«Eskatzaileak benetan txakurraren beharra duela erakutsi behar du. Txakurrak egunerokoan lagundu behar dio, bestela ez du bere lana betetzen».**

Iosu MENDEZ
Bocalan Biak Bateko kidea

**SEKRETUA**

**«Txakurrari norberak esaten diona beti eginaraztea da sekretua, ez uztea inoiz agindu bete gabe. Bestela gero komeriak izango dituzu».**

Antonio ALUSTIZA
Aresoko artzaina

**GIZARTEA** ➜ TXAKUR ETA GIZAKIEN ARTEKO ELKARLANA

# Konpainiaz haratago, gizakiarekin lanean trebeak diren txakurrak

## Heziketa berezi baten bidez lortutako fruituak

Eskuarekin egindako keinu bat edo hitz bat nahikoak dituzte agindua jaso eta betetzeko. Artaldea mendean hartu, oztopoekin lagundu edo larrialdietan bizitzak salbatzeko. Usaimen zorrotza, oin arinak... berezkoak dituzte, baina jasotako heziketak, bihurtu ditu berezi.

**Eneritz IRAOLA**

Argiak itzali edo piztea, ardi galduak artaldera biltzea edo lurpean dagoen pertsona topatzea. Ez dira trikimailu hutsak. Txakur horien egitekoak dira, horretarako heziak izan baitira. Emaitza ez da egun batetik bestera lortzen. Ordu asko behar izaten dira eta agindu berberaren milaka errepikapen. Erreskate txakurrek, artzain-txakurrek eta laguntzarako txakurrek funtsean oinarri bera dute: jabea eta txakurraren arteko elkarlana.

**ARTZAIN TXAKURRAK**

Artzaina eta txakurra. Ezin bata bestea gabe imajina. Batzuen lana mendietan gelditzen da, jendartera eraman gabe. Beste batzuek ordea, hartutako trebezia txapelketetan jartzen dute praktikan. Pauso hori ematen dutenek momentuko tentsioari aurre egiteko gai izan behar dute eta guztiaren gainetik artzainaren aginduak betetzen jakin. Berezko dohaiak landu behar izaten dira, ariketa bereziak eskatzen dizkietelako.

**LAGUNTZARAKO TXAKURRAK**

Ezintasun fisikoren bat dutenen eskuak dira ateak zabaldu, lurrera eroritako gauzak jaso edo argiak itzali ditzakete. Autismoa duten haurrentzat ere baliagarriak dira, integrazioan laguntzen diete. Hipogluzemia kasuak gertatu baino 20 minutu lehenago detektatzeko gai ere badira. Gorputzak botatzen duen beroaren arabera sumatzen dute. Halakorik gertatzean zakurra gaixoaren inguruan biraka hasten da. Alerta mekanismoa martxan jartzen du.

**ERRESKATE ZAKURRAK**

Beraien zeregin nagusia mendian galdutako pertsonak eta hondakinetan edo bestelako materialetan harrapatutakoak ahalik eta azkarren aurkitzea da. Nafarroako Erreskate taldea aritzen da txakur hauek ezten 1993az geroztik. Taldekide guztiak bolondresak dira «zerbitzuarengatik ez dugu ordainik jasotzen» dio Esther Garrote taldeko zuzendariak. «Urteko egun guztietan» atera daitezkeela gaineratzen du «edozein ordutan deituta».

**ARRAZAK**

Laguntzarako txakurrak hautatzerakoan «labrador arrazakoak» izaten dira gehienak. Txakur hauek «pertsonen integrazioan lagundu» behar dutela uste

## TXAKURREN JABEEKIN SOLASEAN



**Iosu MENDEZ** | Laguntzarako txakurra

### «Eskatzailearen eta txakurraren artean binomio perfektua bilatzeko ahalegina egiten dugu»

Laguntzarako txakurrekin egiten dute lan Bocalan Biak Bat elkartean. Berriki Lesakako Irain eskolan izan dira erakustaldi bat eskaintzen. Iosu Mendezek, taldekideetako batek, azaldu digunez «ezintasun fisiko edo psikologiko bat dutenen eguneroko bizitza erraztea» da txakurren egitekoa. Eskatzaileek elkartera jotzen dute txakur baten eske, baina baldintza batzuk bete behar dituzte ezinbestean «benetan txakurraren laguntza behar dutela frogatu behar dute». Txakurra prestatzen «sei bat hilabete pasatzen ditu entrenatzailearekin. Gero instruktore baten eskuetatik pasatzen da, zerbaitetan hobetu beharko balu hobetzeko». Heziketa espazializatua izaten da «momentu horretan badakigu zeinentzat den txakurra eta bere beharrak asetzeko hezten dugu, adibidez ezker besoa ezin badu mugitu, txakurrak alderdi hori garatuko du». Ondoren familiarekin hamabost bat eguneko egokitzapen bat egiten dute «familiari erakusteko txakurrari aginduak nola eman, zer egin dezakeen eta zer ez». Txakurrak ematerakoan «eskaitzailearen eta txakurraren artean binomio perfektua bilatzeko ahalegina egiten dugu» dio Mendezek. Pertsonaren izaera eta txakurrarena lotzen saiatzen dira «haur bati adibidez ez diogu, zakur indartsu eta handi bat jarriko». Laguntzaileak ez dira bizitza guztirako «txakurrak ere jubilatu» egiten baitira. Bere ustez, «10 urtez lanean aritu ondotik, ongi irabazia dute atsedena».



**Antonio ALUSTIZA** | Artzain-txakurra

### «Eguneroko lana da egon litekeen entrenamendurik hoberena artzain-txakur batentzat»

Duela «25 urte inguru» hasi zen artzain txakur txapelketetan parte hartzen Antonio Alustiza. "Ttiki" izan du azken hamar urteetan bidelagun. Txakurrari izenak ez dio izana aitortzen. Handia izan baita bikoteak lortu duena. Hiru aldiz jarraian Oñatiko Nazioarteko Txapelketa, Nafarroakoa zazpi aldiz, eta Euskal Herrikoa behin irabazi dituzte. Emaitzak horiek lortzeko «eguneroko lana da txakurrarentzat egon litekeen entrenamendu hoberena» esan digu. Urtean zehar txapelketetan egiten dituzten ariketa batzuk ez direla egiten dio «etxeko lanak egiteko adibidez, banderak ez dira behar». Txapelketak hasi baino «hilabete bat lehenago hasten naiz ariketa horiek egiten» dio. Entrenamendu egiteko ez da urrutira joaten «gure belazeetan zirkuitu antzeko bat jarri» eta «bere kasara» aritzen dela dio. «Modu librean» egin arren, egiten duen guztia «beharrezkotzat» jotzen du. Izan ere, «etxean ongi egiten dute ariketa, baina jendearen aurrean hauek ere ehuneko handi bat jeisten dute». Artzaina eta txakurraren arteko erlazioak «estua eta oso ona» izan behar du, nahiz eta batzuetan «egun txarrak izan, bai nik eta baita hark ere». Ibilbide oparoa izan dute, baina Ttikiri «ailegatu zaio erretiroa hartzeko garaia». Bere alabak, Bat-ek hartuko du lekukoa «momentuan behintzat etxeko lanetan oso gustora nago egiten duen lanarekin». Berriarekin «ahalegina» egingo duela dio eta emaitza txapelketara joandakoan ikusiko dela.



**Arantxa KONDE** | Erreskate txakurra

### «Txakurrak ikasten du pertsona topatzen badu bakarrik lortuko duela saria, bere jostailua»

Nafarroako Erreskate Zakurren taldean ibili zen hiru urtez Arantxa eta «esperientzia hagitz interesgarria eta ona» izan zela dio eta «lantaldea izugarri jatorra» zela. Txakurrari «nola entrenatu, nola erakutsi ikasten duzu» bertan, baina erreskate batean parte hartzeko hori baino »gehiago behar» dela aipatzen du «zuloren batera erori den norbait erreskatatu behar baduzu eskalada egiten jakin behar duzu, lehenengo arretarako ikastaro batzuk ere hartzea komeni da».Bilaketa egiterakoan txakurraren motibazioa «bere jostailurik gogokoena da, pilota bat adibidez». Txakurrak «itsututa egon behar du jostailuarekin» eta badaki erreskatatu beharreko pertsona «topatzen badu, bakarrik lortuko duela saria, bere jostailua». Entrenamendu guztietan «jostailu hori sartu» behar dela aipatzen du. Ariketa oso errealak egiten dituztela azaltzen du «erreskate batean leherketa bat gertatu daiteke, horregatik suhiltzaileekiin benetako leherketak praktikatzen dira». Gure eskualdean «Berako kanteran izan ginenean ikaragarrizko zuloak egin genituen, kotxeak zuloetan sartu eta kotxe barrenean pertsonak sartu ziren eta gero zuloak harriz tapatu ziren». Zakurrak ordu bete inguruan aritzen dira normalean erreskateetan, eta gero beste batek betetzen du bere lekua«bestela frustrazioa handia da txakurrarentzat». Inplikazio handia eskatzen duela dio «ordu asko eta lan handia egin behar da, txakurra mailara iristeko».

dute eta «arraza batzuetako txakurrekin aurkako efektua» lortuko luketela uste dute Bocalan Biak Bat elkartean. «Rotwailer, pitbullak... ikara sortzen dute. Pertsona bat arraza horretako txakurrekin ikustean urruntzeko joera izaten dugu». Erreskate zakurren artean, arraza ez da finkoa izatean, baina edertasun arloetatik datozen txakurren ordez, lanerako txakurrak lehenesten dituzte eta taldean sartu aitzinetik froga bat ere egiten zaie, gaitasunak neurtzeko. Artzain-zakurren kasuan arraza jakin batzuetakoak erabiltzen dira. Alustizaren kasuan ez hori bakarrik, Ttikik erretiroa hartzen duenean, bere alabak hartuko baitu lekukoa.

Lau hankako heroiak, egunerokoan bidelagunak edo lehiaketetan txapeldunak. Txakur bereziak dira baina, agian, beraien jabeak ere bereziak direlako izanen da.



**Nire txanda**

Ruben GARATE

# 2013 zoriontsua

Hilabete berandu bada ere, horra sarean dabilen Eguberrietako 'mezu' horietako bat. Eguberrietako txorakeriekin hasten zen historia, Eguberri zoriontsuak, baina aurten ez dago zoriona inondik hartzerik, Eguberri zoriontsuak kasik 6 milioi langabeturekin, galdetu pagarik gabe gelditu diren funtzionarioei edo erosteko ahalmena galdu duten jubilatuei zer erosi behar duten. Zer erran zor subirauaren krisiaz, arrisku saria zeruetatik eta Merkel sudurrak ukitzen, bertzela galdetu duro bat ordaintzen ez duten administrazioek itota dauden enpresa ttikiei, edo haurtzaindegietan edo botiketan. Jendea kalean, teilaturik gabe dagoen bitartean, bankeroak erreskateko diru goxoaz babesten dira gauero… Beraz, hipokritak izan behar badugu izan gaitezen eta Eguberri zoriontsuak eta 2013 oparoa, baina ez gaude horretarako. Horrelako zerbait zioen mezuak, eta denboraz kanpo bada ere, badauka berea.

**«Jendea teilaturik gabe dagoen artean, bankeroak erreskateko diru goxoaz babesten dira»**

**Ezpala**

Aitor AROTZENA

# Zerutik lurpera

Kirol arloan batez ere, idoloak goratzeko ohitura handia izaten da. Duela urte batzuk, Lance Amstrong txirrindulariak bultzatutako Fundaziorako pultsera horiak nonahi ikusten ziren. Orain, dopatu zela onartu behar izan du eta akabo pultserak eta irabazitako Frantziako 7 Tourrak. Zer eginen genuke, noizbait, Indurainek legez kanpoko zerbait hartu zuela agertuko balitz? Zerutik lurpera…

## Nabarmentzekoak



**Dolores REDONDO**
Idazle donostiarra

Baztanek kokatu du idazleak *El guardian invisible (Zaindari ikusezina)* eleberriaren gertakizunak eta Elizondon egin zuen aurkezpena. 13 hizkuntzetara itzuliko da liburua.



**Isabel LASTIRI**
Urdazubiko gasna saritua

Nazioarteko lehiaketarik handienean, Ingalaterrako Birminghameko World Cheese Awards Sariketan, Super-Urrea lortu du Bengoetxea gasnak, mundu osoko 2.700 gasnen artean.



**Juan LOSA**
UPNko zinegotzia Beran

Herritarrek eman dioten ordezkaritza onartu arren, bere jarrerarekin Herriko Etxearen eguneroko lana zapuzten duela salatu dute Aralar, Bildu eta PNVko udal taldeek.

**Atzera begira ➜ 2003.02.06** / TTIPI-TTAPA 343 zbk.



### Anbulantzietako gidari eta laguntzailek greban

Gaur egun ere ez dute egoera xamurra, baina 2003. urteari greban ekin zioten Nafarroako anbulantzietako gidari eta laguntzaileek, bertzeak bertze lan baldintza hobeak eta enpresa publiko baten sorrera eskatuz. Izan ere, Elbeteko Xanti Juanikotena gidariak aipatu zigunez, «anbulantzia zerbitzua pribatua da orain eta hortik heldu dira aferak, horrek eragin handia baitu ez bakarrik gure soldatetan, baita eskaintzen den zerbitzuan ere». Beraien eskariak ere garbi azaldu zituen: «asteburu eta besta egunetan aritzegatik plus bat eskatzen dugu, baita arriskuarengatik ere: istripuak ez ezik gaitzen bat kutsatzen ahal zaigu».

ttipi-ttapa

**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • **info@ttipi.net**

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

**2013ko harpidetza sariak**

| | | |
|---|---|---|
| Hego Euskal Herria ............40€ | Europa ..................59,50€ | Baztan, Urdazubi eta Malerreka ................34€ |
| Ipar Euskal Herria ..........59,50€ | Amerika eta Australia ..........124€ | Leitza ......................................17€ |

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

**Kolaborazioak**

# Demagun datu harrigarri hauek egiak direla… (eta 2)

Juainas PAUL ARZAK

Armada nahitaezkoa da? Afganistan? Armen salmenta eta erosketa? Beharrezkoa norentzat eta zertarako? Estatuaren ikurra eta bizkarrezurra omen da. Hala uste duzu? Zurea? Ikurra dugu ere erregea, oihala, selekzioak... Zenbat diruarekin eta noren bizkar gainean ordainduak? Bakarrak eta eztabaida ezinak? Ustelkeria okasioak eurak ere? Nik bakarra ere ez dut nahi.

Hara, goiko guzti horren ondotik, sistema honen salbatzaile eta oinarria omen diren enpresaburuen burua iruzurretan topatuz gero... antzarak edo beleak FERRANtzera bidali beharko genuen dena, kaltegarriagoa ez balitz. Txina eta Errusiako ereduak eragina aspaldi xamar galdu bazuten, berriz, Obelix-Depardieu Putinekin bat eginez ikusteak, besarkadan, Galiar herririk gabe utzi gaitu. Zer egin? Hausnartu? Erantzun gabeko galdera gehiegi!

Desberdintasunean oinarritzen den sistema genuen aspaldikoa, baretuz zihoala uste genuen, garaikidean, eta, neurritik ateratzen ari den beste bat prestatzen ari garela nabaritzen dugu, orain: biharkoa. Kezkagarriena ez da materialki apalago bizi beharko dugula. Ez. Kezkagarriena daez dugula guztiz garbi nork aginduta eta noren probetxuan ari garen, edo garbiegi dugula, behar bada. Gero eta gutxiago dira, gero eta aberatsago, gero eta urrunagokoak. Berdintasun, legearen eta demokraziaren aginduetara ari direla diote. Sinetsi dezakezu? Kapitalak aspaldi bahitu zuen onartzerik ez duen demokrazia.

> «Kezkagarriena da ez dugula guztiz garbi nork aginduta eta noren probetxuan ari garen, edo garbiegi dugula, behar bada»

Politikoen papera, betebeharra, errealitatearen kudeaketa, moldaketa, konponketa edo dena delako hori omen da.

Sistema politikoa ‘en coma’. Nola gidatu dezake krisialdiaren aurkako gerra? Berak emanen dio beharrezkoa den iraultza ala ‘jaka buelta’ berri bat besterik ez da izanen? Parean, benetako menpetasuna. Ustelkeria, harreman izkutuak, dirudunen presioak, nahi ez dugun Europa horrenak…

Iraultzak, iraultza izan nahi badu, bizimodu osoaren aldaketa behar du. Nor iraultzaile?

Denak berdinak direla esan gabe, ez delako egia, garaia dugu POLITIKA idazteko. Hara, hurrengo botoa eman aurretik zuk zeuk osatu beharko duzu politiko onaren eskema, politikara aurkeztuko direnek euren garbitasuna frogatu, kontrolak areagotu eta gardendu, alda ez daitezkeen asmoak eta planak aurkeztu… ardurak finkatu… Itoiz, Garoña,…

Banan bana ez gara deus, elkarturik, ordea… Nola elkarturik? Kutxabankek duen ardura eta hipotekak… Iruñeko ‘elkarte zalataria’, Alderdiak?

# Serafin Baroja

Mikel TABERNA IRAZOKI «Kapi»

Joan den urtean ehun urte bete ziren Serafin Baroja hilik. Nola deitura hori paraje hauetan ez dugun batere arrotza, interesgarria iruditu zait gizon horren berri honat ekartzea. Gaur egun Pioren aita zelako ezagutzen dugu gehienbat, eta orduan ere, semea famatzen hasi zelarik, hala omen zen. Txispa bereziko gizon hark, beti gauza bera aditzeaz asperturik, txartel bat prestatu zuen inprentan: *Serafin Baroja, padre de Pio Baroja*. Nolanahi ere, iduri du semearen beharrik izan gabe nahiko meritu egin zuela bere obrengatik ospetsua izateko. Donostian jaio baitzen, Konstituzio plazan, 1840an, ziutate horretan joan den abenduan ekitaldi batzuk prestatu zituzten haren izenean. Haietan, Patri Urkizu idazleak hitzaldi bat eman zuen, eta hari esker ikasi dugu “Kaskazuri” erraten ziotenaren gaineko kontu mordoxka.

Ezagutu zutenek honela ikusten zuten “On Sherafin”: *egiyetako Donostiarra; jakintsu, prestu, leiala; errikoxeme alaia; iskribatzaile azkarra; irutxulotar seme jatorra, Joxemaritar; koxkero; eta itzkuntzalari on ta garbiya*. Bertze toki batzuetan irakurri dugu euskaltzalea eta liberal porrokatua zela.

> «Makina bat gauza eskribitu zuen, euskaraz eta gaztelaniaz. Konparazio batera, euskaraz idatzi zen lehen opera hark egun omen zuen, *Pudente*, eta estreinako nobela ere harena ote den diote. Harenak dira San Sebastian egunean kantatzen diren hitzak. *Sebastian bat bada zeruan…*»

Ofizioz ingeniaria izanagatik, afizioz letrazalea zen, eta horrek gehiago tiratzen zuen. Makina bat gauza eskribitu zuen, euskaraz eta gaztelaniaz. Konparazio batera, euskaraz idatzi zen lehen opera hark egin omen zuen, *Pudente*, eta estreinako nobela ere harena ote den diote. Harenak dira San Sebastian egunean kantatzen diren hitzak: *Sebastian bat bada zeruan...* Poesia eta antzerki lanak euskarara itzuli zituen, egunkariak sortu ere bai... Carmen Nessirekin esposatu eta gero, lau semealaba izan zituzten: Darío, Ricardo, Pio eta Carmen. Familiak 1912an erosi zuen Berako Itzea etxea, baina Serafinek ezin izan zuen batere disfrutatu, urte hartan berean hil zelako, uztailaren 15ean. Carmenek kontatzen du *“en un piso encima del estanco”* eman zuela azken hatsa (Alkatenean), Itzea konpontzen ari ziren bitartean. *Iru Damatxo* abesten ari zela egin omen zuen bertze mundura martxa.

**Irakurleak mintzo**

# Lan Erreformaren eragina Negoziazio Kolektiboan

Koldo SAENZ (LAB sindikatuaren izenean)

Lan Ërreformak Negoziazio Kolektiboan daukan eraginaren berri eman nahi dugu, Nafarroan Negoziazio Kolektiboaren panorama blokeo egoera batean dagoen une honetan. Nafarroan sektore ezberdinetako herrialdeko Lan Hitzarmen ezberdinak blokeo egoera batean daude, eta ez da blokeo hori gaindituko baldin eta langile klaseak borrokaren bitartez blokeoa xehetzen ez badu. Mariano Rajoy-k eta PP-ren gobernuak indarrean paratu zuen Lan Erreformak, artikulu batzuk sartu zituen non Negoziazio Kolektiboaren balantza patronalaren alde iraultzen zuen. Artikulu horien arabera alde batetik enpresa sinaturiko Lan Hitzarmenetatik deskolgatu daiteke (kontrakoa behintzat adostua ez badago), baldin eta arrazoiak justifikatzen baditu: patronalaren arrazoiak noski. Bertze alde batetik Lan Hitzarmen baten iraupena bukatu eta urte batera bertzerik sinatua ez badago, hurrengo mailako hitzarmenera pasako zen, eta ez balego hurrengora eta hola beti. Adibide bat jartzearren enpresa bateko Lan Hitzarmena bukatu eta urte batera bertzerik ez badago sinatua, Nafarroako hitzarmenera pasako litzake, eta Nafarrokorik ez balego Estatu mailakora.

Egoera honetan eta ikusirik Nafarroako Negoziazio Kolektiboa blokean dagoela, blokeo hori xehetuko ez balitz, enpresetako hitzarmenik ez balego eta Nafarrokorik ez balego estatukora pasako zen, horrek suposatuko lukeen galerarekin.

Egoera hau gainditzeko formula magikorik ez dago. Lan Hitzarmenak blindatzeko formulak adostu daitezke enpresarekin baina hortarako borroka egin beharko da, patronala ez delako hori oparitzearen alde agertuko.

Bertze aldetik Nafarroako Lan Hitzarmenak desagertuz gero, eta enpresan ez balego akordiorik, estatu mailakora pasatuko litzatekeenez, sektore guztietako langileen borroka beharrezkoa da, behintzat Nafarroako minimo hori mantentzeko eta Estatukora pasatzea ekiditeko. Beraz denon ardura da, Nafarroako Lan Hitzarmenak borrokatzea, enpresan lan hitzarmena izan edo ez, berdin eragiten dielako denei.

Beraz LAB sindikatutik Baztan-Bidasoko langileriari dei egiten diogu Nafarroako Lan Hitzarmenen alde borroka egitera, eta sortu daitezkeen dinamiketan inplikatzea. Denon ardura da, nafarrok negoziatzen duguna errespetatzea, eta enpresek Nafarroako Lan hitzarmenetatik beheitira deus ere aplikatzea. Egin daiteke, baina hortarako borroka egin beharko da.



**Bota bertsoa**

Erika LAGOMA • Doinua: Euskal Herritik aparte

## Berriz ere Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Oholtza gainean gerla
ta ni isilik bezela
berriro ere sentitu nahi dut
txaloen epela.
nahiz izan gogo itzela,
badakit erran ohi dela,
bigarren zati ia guztiak
eskasak direla.

Berriro ere plazara
bardoak txapelketara,
bertsozaleak gozatu dezan
badauka parada.
nerbioak ta algara
denetik izango al da?
gonbidapena egina dago,
ikusiko gara!

# Berako UPNko zinegotziaren jarreraren aurrean

Marisol TABERNA (Aralar), Joxemanuel PORTU (Bildu) eta Xanti Altzuguren (EAJ)

Ohar honen bidez, Ohar honen bidez, Berako Aralar, Bildu eta EAJ udal taldeek bere kezka eta nahigabea agertu nahi dute eta UPNko zinegotzia den Juan Losaren jarrera publikoki salatu beharrean gaude,

– Udalean sortzen duen errespetu falta eta krispazio giroagatik,
– Udaleko zereginetan lagungarri izan baino, trabak jartzen dituelakoz eta lan gehiago ekartzen digulakoz.

Horretaz gain agertu nahi dugu zinegotzi honen interesa ez dela herritarren ongizatea, bere bulego propioaren defentsan hamaika idatzi eta eskaera egin ditu pertsonalki eta bertze erakundeetara jo du hauek ere udalera zuzendu direlarik. Horrek sortzen duen lan administratiboak alkatearen eta udaleko langileen lan zama areagotu du eta hori funtzionamenduan laguntza baino, behar ez genukeen traba bat da.

Izan ere desberdintasun politikoak haratako udal honetan urtetan egon den errespetu giroa hankaz goiti jarri du, udalbatzaren bileretan eztabaidak bisten ditu eta kideak probokatzen ditu, gaitik kanpoko aipamenak egiten ditu, gai guztiak nahasten ditu interbentzioak eteten ditu, eta honela bilerak lehertzen ditu.

Azkeneko hilabetetan horrelako egoera sortu den hainbatetan ez du errespetatu ezta Alkateak hitza kendu behar izan dionean, eta kanporatzeko mehatxua egin dionean.

Legea betetzea du bandera baina legeak nahasten ditu berari interesatzen zaion moduan, azkeneko plenoa gai ordenarekin hasi baino lehen alde egin zuen bilera AURKARATZEKO mehatxuarekin, jarri behar izan dugun Espainako Erregearen irudia ez zelakoz berari iruditzen zaion neurrikoa. Horrek ekartzen ahal du Plenoan egindako lana deuseztea, berriz ere egin behar izatea eta landutako gaien atzerapena ekartzea, baina hori ez zaio axola nonbait.

Ulertzen dugu eta onartzen dugu ideologikoki gugandik urrun egotea, eta horregatik hasieratik normaltasunez hartu dugu gure udalean lehenengo aldiz UPNko udal ordezkari gisa, baina egunetik egunera bere jarrerak okerrera egin du eta zuzentasunaren mugan non dagoen jakitea zaila bada ere uste dugu maiz gainditu duela; etengabe mehatxuan arituz eta debaldeko tentsioa eraginez.

UPNri eskatzen diogu defenda ditzala bere politikak, egin dezala egin behar duen lana, baina krispaziotik ihesi, desberdinen arteko eztabaida sosegatuaren bidez, eta udalbatzaren osaera eta bertako kideak errespetatuz.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.net**
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

## Prentsatik bildutakoak



«Neretzako zuzenena hori da [euskara ikastea]. Zurea ez den herrialde batera bizitzera joaten bazara, bere hizkuntza ikasi behar duzula iruditzen zait, jendearekin elkar ulertzeko. Neretzako hagitz garrantzitsua da eta hagitz zaila egiten bazait ere, gustatzen zait (…) Adibidez, norbait Brasilera etorriko balitz, portugesa ikastea gustatuko litzaidake»

**Xanta SOUZA**
Lesakako herri kirolaria
D.NOTICIAS, 2013.01.14



«80-85 minutuko iraupena duten zuzeneko hauetan, maiatzeko egun horietako batean bezala, denetik gerta daiteke: erauntsi zakarrak, eguzki leunak… Gurea ez da, beraz, ez errezitaldi, ez kontzertu, pieza bakarreko estraperlo poetiko-musikala baizik. (…) Hitz batez atipikoak: hainbat giro, kultura eta aldarte uztartzen dituzten emanaldiak dira».

**Mugaldekoak**
Musika taldea
ARGIA, 2013.01.20

## 11 galdera labur

**Zergatik ateratzen da hainbertze musikari Beratik?**
Herritik kanpo, Berako musikariei aunitzetan egin diguten galdera. Nere kasuan, famili kontua da.

**Musika eskolan irakasle… Etorkizuna ere segurtatua dago?**
Inoiz baino ikasle gehiago daude eskolan, beraz baietz ematen du.

**Orain, musika bandako zuzendari ere… Norberak jotzea baino zailagoa al da bertzeak gidatzea?**
Neretzat bai. Jotzerakoan, norberak bere barnean duena eman behar du, eta zuzentzearena bertze kontu bat da. Hala ere berria naiz, orduan ikasteko aunitz dago.

**Musika tresna gehienak menperatzen dituzu… Gogokoena?**
Instrumentu batzuekin moldatzen naiz. Baina hortik menperatzera… Bidea luzea da. Gogokoena? Dudarik gabe, bateria.

**Halere, trikitixak nahi baino lan gehiago ematen omen dizu…**
Bateriari esker, trikitilari haundiekin jotzeko aukera izan dut, Maixa, Gozategi, Alaitz, Solano, Goenaga… Beraiei uztea izanen da onena. Gainera, ttiki xamarra da neretzat.

**Bateriarekin, Maixa eta Ixiarrekin hasi eta Pirritx eta Porrotx bitarte… Zenbat taldetan?**
Zorte haundia izan dut. Estilo aunitz jorratzea suertatu baitzait. Ez ditut zenbatu, baina grabaketak eta zuzenekoak kontatuta, 60tik gotti izanen dira taldeak edo kantariak..

**Gure Txokoako atezain zinenean ere, aunitz 'kantatzen' al zenuen?**
Futbol talde lana da, baino *solo*ren bat, seguro….

**Zizkuitz Txarangarekin ere ibiltzen zinen… Bestarik gogokoenak?**
Beratarra izanda, Berakoak. Hauetaz aparte, Goizuetakoak, nola ez..

**Goizuetan, arrain zopak eta kalluk janez eman omen zenuen astea…**
Hau gezurra da!! Goizuetan astebetez ez gara inoiz egon. Beno, egun batzuk bai, baino Huizin horren ongi prestatzen zituzten…

**Parrandarako kanturik politena?**
Aunitz badira, baino txarangako garaietaz ari ginenez, orduan sarritan aditzen genuen *Pedro Navaja*.

**Eta bestondoa etxean goxo-goxo pasatzeko musika?**
Gustuko edozein, ahalik eta hobekien pasatzeko.



**Igor TELLETXEA ➜ Berako musikaria**





















# BERA

**GIZARTEA** → EGUNEZ BAKARRIK EGONEN DIRA IREKIAK

## Futbol zelaiari eta frontoiari ordutegia ezarri die Udalak

Herritar batzuk eremu publiko hauen erabilera kaxkarra egin dutelako hartu da erabakia

**TTIPI-TTAPA**

Matzada futbol zelaiak eta Eztegara frontoiak irekiera ordutegia izanen dute hemendik aitzinera. Matzada goizeko 9etatik arratseko 8:30era egonen da zabalik eta frontoia goizeko 9etatik arratseko 9:30era.

Ordutegia jartzeko arrazoia, herritar batzuek egiten duten eremu publiko hauen erabilera kaxkarra izan da. Matzadan argiak eta bankiloak hautsi izan dira eta zikinkeria pilatzen da. Frontoian, berriz, komunak, ateak eta kristalak hautsi dituzte, estintoreak ireki eta kantxa zikindu… Eztegaran argiarekin ere izan dira arazoak eta hori kontuan hartuz aldera, hemendik aitzinera frontoia argiarekin erabili nahi duenak aitzinetik izena eman beharko du. Otsailaren 8ra arteko epea izanen da horretarako. Zerrendak osatuak daudenean, apuntatutako jendearekin bertze bilera bat eginen da, ordutegia finkatzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Mugaldekoak taldeak kontzertu ederra eskaini zuen

Mugaldekoak musika taldeak emanaldi gustagarria eskaini zuen urtarrilaren 12an Kultur Etxean. Beñardo Goietxe eta Raul Garcia Etxeberriarekin batera, erdi beratarra den Edu Zelaieta eta Mattin Sorzabalbere heldu berriak ipuinak, poemak eta kantuak uztartu zituzten, *Begiak lekuko* diskaren aurkezpenean.

### Inude eta Artzaiak entsaioak

Gure Txokoa dantza taldeak Inude eta Artzaien konpartsarako entsaio egunak zehaztu ditu. Otsailaren 2an, larunbat goizeko 11:00etan; otsailaren 6an, asteazken arratsaldeko 8:00etan eta otsailaren 8an, ortziral arratsaldeko 8etan eginen dira Eztegara pilotalekuan. Iaz konpartsan atera eta mozorroa itzuli ez dutenak lehen entsaiora mozorroa eramatea ere eskatu dute dantza taldetik. Izen emateko eta bazkarirako txartelak 13 eurotan erosteko aukera ere entsaio egunetan izanen da. Bazkaria Zubiondon izanen da, urtero bezala.

### Gure Txokoaren mus txapelketa

Gure Txokoa elkartearen mus txapelketa otsailaren 9an, 16:00etatik aitzinera jokatuko da lamotenean. Bikote bakoitzak 12 euro ordaindu beharko ditu, eta sari bikainak eskura ditzake. Irabazleek, txapelez gain, 400 euro eskuratuko dituzte; txapeldunordeek 2 bazkari Zalainen; hirugarren sailkatuek Zubiondon 2 bazkari eta laugarrenek Martikoko 2 lote.

### Agerraren batzarra

Otsailaren 16an eginen du Agerra Mendi Taldeak bere urteko batzarra, 12:00etan.

**?**

***Ba al zenekien…***

**Toki Ona Institutuko DBH-4ko ikasleek egindako zozketatik hilabete bat pasatu dela eta, sariak ezin direla dagoeneko erreklamatu.**



**Pertsonaia**

Estitxu PINATXO

### Damba taldearen abeslari berria

24 urte eduki arren, musika munduan ibilbide luzea du Estitxu Pinatxok. Nafarroako Kantu Txapelketan sari ugari eskuratu ditu eta 15 urterekin plazaz plazako bideari ekin zion. ETBko *Euskal Kantu onena* saioan parte hartu zuen eta hortik aitzinera hainbat kolaborazio eta behin-behineko lan egin zituen. Joan diren bi urte hauetan telebistan ikusi dugu gehien bat EITBko *Kantuan* saioan eta Telecincoko *La Voz* programan. Orain bat egin du Damba taldearekin eta kontent dago beratarra. «Oso giro ona dagoela ikusi nuen, eta horri garrantzia handia ematen diot nik. Ordu asko konpartitzen dira lanbide honetan, ezinbertzekoak dira giro ona, eta zergatik ez katxondeoa». Ilusioarekin hartu du erronka berria. «Musikari bikainak daude talde honetan, eta profesionalez inguratuta egotean asko ikasten da».







Jesusen bihotza ikastetxea
berria
D
A B
ereduak
eskeintzen dira
Aurre izenematearen epea otsailaren 01etik 08ra
scorazonbera@planalfa.es
948 63 00 09

# LESAKA

**ELKARTEAK ➜** OTSAILAREN 2AN

## Sukaldaritza lehiaketako sariak banatuko ditu Arrano elkarteak

Bazkarirako txartelak hilaren 31 bitarte eskura daitezke

**Aitor AROTZENA**

Arrano elkartearen 25. urteurreneko ospakizunen baitan hilabetero egin den sukaldaritza lehiaketako sariak banatzeko bazkaria antolatu dute otsailaren 2an. Oraingoan, epaimahaikide lanetan aritu direnak izanen dira sukaldariak, Kotte lantzi, Andoni Mitxelena eta Garbiñe Baselga. Urtarrilaren 31n bukatuko da izen emateko epea, arranolesaka@gmail.com helbidean edo 948 627597 telefonoan. Menu berezia prestatu dute sari banaketarako: sarrerakoak (txanpinoi bolobanak, puding dastaketa eta sasoiko barazkiak kazulatxoan), itsaso krematsua, legatza otarraineztatua, xolomo aranaz eta kiwi eztiak.

### Zakozarren bilera

Inauterietan zakozarrez atera nahi dutenek bilera izanen dute otsailaren 2an, larunbat arratsaldeko 6etan Arrano elkartean. Modu berean, Arrano elklarteak lesakarrak animatu nahi ditu zakozarren antolaketa lanetan parte hartzera eta deia luzatzen die inauterietako igandean, arratsaldeko 4:30etik aitzinera zakozarrak belarrez bete eta josteko lanetan bere laguntza eskaintzera.

### Hiru obren esleipena

Herriko Etxeak obra txiki hauek egin behar ditu: Lopeneko bordako bidean hormigoia jarri, Dendarieneko kanala garbitu eta Igantziko bideko erortza kendu.

Ezarritako epean, hiru enpresak egindako eskaintzak hartu zituen Udalak eta horien artean, Sarritan S.L enpresak egindakoa izan zen merkeena (3.360 euro, BEZa aparte) eta berari esleitu dio Herriko Etxeak.

### Beñat Atorrasagasti Eskoziatik Frantziara

Beñat Atorrasagasti egunotan eramanen dute Eskoziatik Frantziara, Edinburgoko epaitegi batek ebatzi duenez. Atorrasagastik ezin du helegiterik jarri erabaki horren kontra. Frantziak ere eskatua zuen haren estradizioa, ustez "delitu historikoetan" zerikusia izan zezakeelakoan.

Iazko uztailaren 13an atxilotu zuten Atorrasagasti, Edinburgon. Eskoziako Poliziak jakinarazi zuenez, "Espainian eta Frantzian eginiko delitu historikoengatik" hura estraditatzeko eskatu zuten bi estatuek. ETArentzat pertsonak eta hainbat material garraiatzea egozten diote.

### Herrira saskia

Herrirak bi saski zozketatu zituen Eguberrietako Elkartasun Zozketan, baina horietako baten jabea ez zen agertu tenorez. Bertze zenbaki batek izanen du saria: 1035. Maialen Irigoien Fagoaga da bere jabea eta beretzat izanen da saskia.



ARGAZKIAK: PATXI ZAMORANO

### San Anton eguneko erromeria euripean

San Anton egunez Endara auzora hurbildu zirenek eguraldi eguzkitsu ederra izan zuten, baina ondoko igandean erromeriara joan zirenek euripean pasatu zuten goiza. Halere, izan zen meza aditzera, erroskilak edo taloak erostera eta dantzatzera animatu zenik ere.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### Mankomunitateen egutegien urtarrileko saria Mari Carmen Petrikorenarentzat

Eskualdeko Hiri-Hondakin Mankomunitateek eta udalek banatutako egutegiarekin hilabetero egiten den zozketako urtarrileko sariduna herritarra da: Mari Carmen Petrikorena Telletxea. Produktuekin betetako saskia egokitu zaio, 6.939 zenbakiaren jabe izateagatik. Juan Mari Indakoetxea semeak jaso zuen saria, Migel Mari Irigoien, Bortzirietako Mankomunitateko presidentearen eskutik.











# ETXALAR

**MENDIA ➜** ALTXATAK ANTOLATUKO DU

## Etxalarko Mendi Itzulia 2013 martxan da

### Apirilaren 21ean eginen da

**Irune eta Itsaso**

Urtarrilaren 18an izan zen Altxatak deituriko bilera eta bertan apirilaren 21ean izanen den Etxalarko lehenengo mendi itzuliaren aurkezpena egin zen. Momentuz boluntario bila ari dira; beraz, egun horretan edo aitzinetik egin daitezkeen lanetan laguntzeko prest dagoena jar dadila harremanetan Altxatako kideren batekin. Aitzinago bertze bilera bat eginen da lanak banatzeko.

### Ailegatzen ari dira inauteriak

Otsailaren 7an, Ortzegun Gizenarekin hasiko dira inauteriak eta Landagain eskolako ikasleek antzerkiak eginen dituzte. Eguraldi ona izanez gero herrian barna auzo desberdinetan joanen dira beraien antzerkiak egiten, eguraldiak laguntzen ez badu berriz, frontoian eginen dituzte. Ondotik berendua izanen dute plazan guraso elkartearen eskutik.

Otsailaren 10ean, igandea, Zaldun inaute eguna, kinto bestak izanen dira.

Otsailaren 11n, astelehen inaute eguna. Herriko gazteak bi taldetan banaturik batzuk goiko auzoan eta bertzeak beheko auzoan eskean ibiliko dira egun guzian zehar. Eguna ongi hasteko gosaria izanen dute 08:00etan La Basque jatetxean eta egunari akabera emateko pintxoak Elutsa ostatuan.

Otsailaren 12an astearte inaute, inauterietako azken eguna izanen da. Goizean herriari itzulia emanen zaio mozorro eta karrozekin. 18:00etan Beñat akordeoilaria ibiliko da ostatuz ostatu eta ilunabarreko 8etan taloak izanen dira salgai.



ARGAZKIA: MATTIN ZELAIETA

### San Antonera irteera

Urtarrilaren 20an Zanpingorri mendi taldeak San Antonera irteera egin zuen urtero bezala. 11 lagun animatu ziren eta eguraldiak ez bazuen batere lagundu ere, giro ederrean egin zuten mendi buelta. Aitzineko urteetan hau izaten da sasoiari hasiera ematen dion irteera. Denboraldi honetan, udan geldialdi bat egin ondoren, duela bizpahiru hilabete hasi ziren igande goizetan mendira ateratzen. Animo eta gogo handiarekin dabiltzala ikusten da eta segi horrela!

**ELKARTEAK**

## 25 bazkide bildu dira Sute Elkartearen batzarrean

**Irune eta Itsaso**

Urtarrilaren 12an aitzineko urteetan erositako su-itzalgailuen errebisioa egin zen Kultur Etxean eta 32 su-itzalgailu eraman zituzten bazkideek.

Urtarrilaren 20an berriz, urteko batzarra egin zen eta 25 bat bazkide bertaratu ziren. Landutako gaiak aitzineko aktaren onarpena, kontuen onarpena, Iriberrin gertatutako sutea eta eskaerak eta galderak izan ziren.



ARGAZKIA: IMANOL ITURRIA

Gogoratu zen mendietako suteetan erabiltzeko palak ondorengo baserrietan daudela: Beheko zubian, Xindolan, Santsiñeneko bordan, Xoraxuriko bordan, Landaburuko bordan eta Maisterreneko bordan.












# ARANTZA

HERRIKO ETXEA ➜ LANAK

## Herriko eraikinak garbitzeko bi langile hartuko ditu Udalak

Bi eskaera onartu dira eta euskara proba eta azterketa teorikoa egin dituzte

**Nerea ALTZURI**

Joan den urte bukaeran, udaletik herriko eraikinen garbiketarako lanpostu deialdia egin zuen. Aldi honetan, egunean hiru orduko lanaldiarekin bi langile hartuko ditu. Eskola, udaleko bulegoak, medikuaren kontsulta, ludoteka eta baskula garbitzeko lanak izanen dituzte. Prozesua pixkabat luzatu da eta bigarren aldiz deialdia egin ondoren, lanpostu honetarako eskatutako baldintza guziak betetzen dituzten bi herritarren eskaerak onartu dira. Joan den asteartean euskarako proba eta azterketa teorikoa egitekoak zituzten. Lerro hauek idazterakoan ezin dugu informazio gehiagorik eman.

### Guraso elkartetik berriak

Gogotsu eta indartsu dabil eskolako guraso elkartea. Aurten lehenengo aldiz, eskolako haurren eta irakasleen argazki eta urtebetetzetako datak erakusten diren egutegia osatu dute. Herriko hainbaten laguntza jaso dute egutegi hau egiteko gastuari aurre egiteko. Guztira 100 ale saldu dituzte eta horrela, guraso elkartearentzat laguntza ederra izan da, egoera ekonomiko kaxkarra zertxobait arinduz.

Egutegian laguntzaile guztien izenak eta esker onak agertzen badira ere, lerro hauen bitartez Guraso Elkartetik berriz ere eskertu nahi dituzte modu batean edo bertzean babesa eman dutenak.



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Aurten ere mozorro ikusgarriak ikusiko ditugu aste hondar honetan.

Bertze aldetik, eskolako sukaldaria Sagrario Iparragirre da eta jantokiko zaintzailea berriz, Loli Mutuberria.

Hala ere, urtero egiten den bezala, gurasoek, botoen bidez, eskolako sukaldari eta zaintzaile ordezkoak aukeratu dituzte. Esther Burlada sukaldari ordezkoa izanen da; Luis Andueza berriz zaintzaile ordezkoa aukeratu dute.

Kurtso bukaerako ikasbidaia ordaintzen laguntzeko, boletoak edo errifak saltzen dira urte bukaeran. Bi zare eder zozketatzen dira eta aldi honetako jabeak jakinarazi dizkigute.

Zare bat Antsunekobordara joan da eta bertze saskia Zakuteneko Inaxiok eraman du. Zorionak beraz eta gozatu!

Azkenik, ailegatu zaizkigu inauteriak, eta aintzineko alean egitarauaren berri eman baldin bagenuen ere, osatze aldera datu berriak jaso ditugu.

Ortzegun atsaldeko mozorro bestaren ostean, ortziralean zaharrenak baserrietan eta herriko etxeetan barna puxka puxka ibiliko dira. Ttikienak berriz taldeka herrian barna ibiliko dira (nahi dutenak). Gurasoak eurekin ez dira ibiliko (aintzineko alean aipatu genuena zuzenduz), horrela erabaki dutelako.

Bertzetik, larunbat arratsaldean, mozorro besta eta merendua izanen dira. Guraso elkartetik "Piratak" gaia proposatu dute. Ana Larretxea gurasoak koreografia bat zuzenduz, herrian barna kalejira eta geldialdiak eginen dituzte. Ondoren merendua izanen da gorapean. Atsaldea ederki pasako dugu, Pirritx, Porrotx, Mari Motots eta euren lagunak bezala piratetara jolasten!!

### Akatsak zuzentzen

Hiru egunetako mozorraldia hementxe dugu. Mozorro xuri gazte eta gaztetxoen eskeak; haur eta helduen mozorroak; dantzaldiak; herri kirolak; boletoen zozketa; emakumeen eta bertso afaria… Hain xuxen ere, aurreko alean, emakumeen afaria Burlada jatetxean izanen dela idatzi genuen, baina ez da zuzena, aurten Aterpen tokatzen baita. Beraz, ortziral honetan, Aterpe jatetxea emakumeen, bertsozaleen, nahi duen herritarraren xokoa izanen da. Afarian parte hartu nahi dutenek, dei dezatela, 948 634 179ra.












OSPAKIZUNAK ➜ OTSAILAREN 1 ETA 2AN

# Asteburu honetan ibiliko dira mozorroak etxez etxe

Ortzegun Gizen egunean eskolako ikasle eta irakasleak ibiliko dira

TTIPI-TTAPA

Igantziko Iñauteriak Otsailak 1 eta 2an ospatuko ditugu. Bi egun horietan gazteak eskean aterako dira herriko baserri eta etxe gehienak alaituz. Ale honetako gehigarrian informazio gehiago topatuko duzue. Hurrengo astean berriz, Ortzegun Gizena egunean, eskolako ikasle eta irakasleei heldu zaie txanda eta antzeko lana eginen dute ortzegun goizean. Arratsaldean berriz, eskolan zine emanaldia izanen da eta gero Guraso Elkarteak antolatuta berendu ederra ere.



## Zuhaitz landaketa

Eskolarekin jarraituz, Otsailean zuhaitzen landaketa eginen dute, urtero legez. Eguraldiak eta gurasoek lagundu-ta ehunen bat zuhaitz landatuko dituzte, arratsalde polit eta eder batean.

## Solaslagunak lanean

Aurten ere Igantzin Solas-Laguna programa martxan dugu eta astean behin lagun talde majoa gure hizkuntza praktikatzera animatzen da. Animo!!

## Kultur Batzordearen ekintzak

Kultur Batzordeak aurtengo ekintzak programatu ditu eta denetik izanen da: mus txapelketa, sagardo eguna, ardo dastaketa, hitzaldiak, zinea, antzerkia, kontzertuak, ikastaroak… Ezustekoren bat ere izanen da.

## Mendia zikindua

Bukatzeko argazkian ikusten den bezala eta gezurra dirudien arren, beti bada norbait gure mendi ederrak zikintzeaz arduratzen dena. Ea gure teilatuaren gainean harrika ez aritzen irakasten diegun denon artean.



ARGAZKIA: JOXEAN ORTEGA
Beti bada gure mendiak zikintzen dituen jendea ere.

BORTZIRIAK

## 36 konpost ontzi banatu dituzte

TTIPI-TTAPA

36 konpostontzi gehiago banatu ditu Bortzirietako Hiri-Hondakin Solidoak kudeatzeko Mankomunitateak urtarrilaren 22an. Beti bezala, izena eman duten guztiekin bilera egin zuten konposta zer den, nola egiten den, zer botatzen ahal den eta zer ez, eta bertze jakingarrien berri emateko. 36 familiak deituak zeuden, baina bilera irekia izan zen eta konpostaren inguruan interesa zuen jendea ere hurbildu zen. Gainera, hurrengo kanpainarako izena emateko aukera ere izan zuten. Gero, aipatutako 36 familiekin, Mankomunitateak Alkaiagako industrialdean duen nabera joan eta materiala banatu zitzaien.

Bertze aldetik, eskualdeko mankomunitateek banatutako egutegiekin egiten den zozketan, urtarrileko saria 6.939 zenbakiari egokitu zitzaion. Mari Carmen Petrikorena lesakarrak eskuratu du bertako produktuez betetako saskia.





ttipi-ttapa | 583 zk.
2013.01.31

# GAZTE OIHUA

**GIZARTEA** ➜ GAZTE MUGIMENDUA

## Gazte afaria eginen dute Lesakako inautetako larunbatean

Iazko arrakasta errepikatu asmoz Arranon afalduko dute otsailaren 9an

**GAZTE OIHUA**

Lesakako inautetako larunbatarekin afaria antolatu dute Lesakako gazteek aurten ere. Joan den urtean, Jalgi Hadi Garaipenera dinamikarekin loturik, 1512ko pertsonaia ezberdinak oinarri hartuta mozorrotu ziren hainbat gazte. Bertzalde, bideo bat ere erakutsi zuten Sara eta Lesaka artean burutuko zen Gazte Martxako deialdia zabalduz. Aurtengoan Gazte Zukgua prozesuari erreferentzia eginez, fruituen inguruko mozorroak asmatzera gonbidatu dituzte gazteak, nahi ez duenari bertze edozein mozorro janzteko askatasuna utziz beti ere. Bertze herrietako gazteak ere animatu nahi izan dituzte afarira eta izena eman nahi duenak Arranora deitu edo hurbildu bertzerik ez duela egin behar gaineratu dute.

### Gazte Asanblada San Antonera

Lesakako gazte asanbladak eta Beti Gaztek San Antonera irteera elkarrekin antolatu zuten urtarrilaren 20an. Goizeko 8etan mendira abiatu eta eguraldi txarra izanagatik San Antongo ermita dagoen tokiraino ailegatu ziren. Ondotik bazkaria egin zuten Arranon haietako batzuek eta Euskal Herriko mus txapelketarako kanporaketa ere jokatu zen bertan. Jende aunitz animatu ez zen arren bertaratuek ongi pasa zuten.





UTZITAKO ARGAZKIAK

Joan den urteko afaria arrakastatsua izan zen.

### Petti, Etxeko Uzta eta On Kaxernan larunbatean

Petti ta Etxeko Uzta eta On taldeek kontzertua eskainiko dute Kaxerna Gaztetxean otsailaren 2an, 21:00etan. Sarrera 5 euro ordaindu beharko da.

**GAZTE ORAIN DUN/K TENOREA... IZENBURUPEAN**

## Ipar Euskal Herriko Gazte Eguna Ezpeletan ospatuko da otsailaren 2an

**GAZTE OIHUA**

Gazte orain dun/k tenorea... goiburupean Ipar Euskal Herriko Gazte Eguna ospatuko da otsailaren 2an Ezpeletan. Egun osorako egitarau zabala prestatu dute. Goizean Graff tailerrak, Noraezean ikusgarria, eztabaidak, Jokoak eta Euskal Xi Fu Mi izanen dituzte bertzeak bertze. Ondotik, bazkaria izanen da toki berotuan (8 euro). Bazkaria erreserbatzeko 0674664909 telefonora deitu behar da. Bazkalondoan txarangak ere ariko dira, zozketaren sari banaketa eta kontzertuak, Zezenaren taldea, Luz de Putas, Betagarri eta Sutagar taldeekin. Bazkari eta kontzertuaren prezio 18 eurokoa izanen da eta bakarrik kontzertura sartzea 10 euro.




MENDIKO
SAGARDOTEGIA . ERRETEGIA . JATETXEA .
SAGARDOTEGI SASOIAN ORTZIRALA GAUETAN IREKIA!!!
SAGARDOTEGI MENUA:
- Txorizoa erreta
- Bakailao-tortilla
- Bakailao frijitua
- Txuleta
- Gazta eta intxaurrak
30€
ERRESERBAK EGITEKO:
948 630 302
670 365 011
IBARDIN (Bera)
MANTTALE MENUA:
- Kroketak
- Bakailao-tortilla
- Txuleta
- Gazta eta intxaurrak
25€
Joan-etorrirako garraioa negoziatzeko aukera

GIZARTEA ➜ HERRIKO ETXEAK ANTOLATUTA

# Inauterietako argazki lehiaketa eginen da bigarren urtez

Otsailaren 15a baino lehen aurkezteko

Maider PETRIRENA

Bigarren urtez Iñauteriei buruzko argazki lehiaketa antolatu du Udalak, herrian erroldatuak dauden guziei irekia. Argazkiak aurkezteko epea urtarrilaren 29tik otsailaren 15era bitartekoa izanen da eta gehienez 3 argazki aurkezten ahal dira. Hori bai, parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute udal bulegoetan.

Formatua: Argazkiak zuri-beltzean edo koloretan egindakoak izan daitezke, 20x30 cm neurrikoak. Apaindu gabe aurkeztuko dira; hots: marko, passe-partout, edo kristalik gabe. Bestalde, argazkiek ez dute izanen egilea ezagutzera eman dezakeen daturik. Argazkiak, gisa hauetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz aurkeztu beharko dira. Irabazleak, jakinarazpen ofiziala jaso eta 3 eguneko epean, argazki irabazleen kopia digitalak bidaliko ditu.

Argazkiak argitaratugabeak izanen dira eta ez dira aitzinetik bertze lehiaketa batean saritutako argazkiak onartuko.

Argazki guztiak Udalaren Web orrian erakutsiko dira. Saritu gabeko argazkiak Udaletxean jaso ahalko dira, hilabeteko epean. Handik aitzinera, jaso gabeko argazkiak Udalarenak izanen dira. Saritutako argazkiak Udalarenak izanen dira, baita horien gaineko eskubide guztiak ere. Epaimahaia, herriko alkateak eta zinegotzi batek, Ulibeltzak elkarteko lehendakariak eta iñauteriak antolatzen dituen gazteen ordezkari batek osatuko dute. Epaimahaiak aurkezpen epea bukatu eta hurrengo astean erabakiko du irabazlea zein den eta honek 150 euroko saria jasoko du. Udalaren Web orrian sariduna nor den zabalduko da.

**Ba al zenekien…?**

**Sei urte eta erdi itxita egon den Bustitz Ostatuaren irekiera egin zela urtarrilaren 19an, arratsaldeko 7etan.**



ARGAZKIA: JONTXU ANZIZAR

## Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa

Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa Ulibeltzak elkartean jokatu zen urtarrilaren 18an. Azkenean soilik 7 bikote apuntatu ziren, iaz baino bat gutxiago. Irabazleak Maria eta Gorka izan ziren, bigarrenak Itxegi eta Mañoli, hirugarrenak Pakita eta Teresita eta laugarrenak Koro eta Jabi. Hurrengo fasera pasako den bikotea Maria eta Gorka izanen da eta Iruñeko Arrano elkartean jokatuko dute otsailaren 23an. Zorionak. Eskerrak eman antolatzaileen partetik Ulibeltzak Elkarteari sariak jartzeagatik eta eskeinitako laguntzagatik.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

## Uholdeak izan ziren urtarrilaren 15ean

Urtarrilaren 15ean uholdeak izan ziren. Frontoian ur nahiko sartu zen eta ondorioz eskolako haurrek ezin izan zuten ekintza ezberdinak egitera joan eta jangela ere hor dagoenez Ulibeltzak elkartean bazkaldu behar izan zuten. Horretaz gain, Epetxenekobordara joateko pista zati ederra ere erori zitzaien eta egun horretan inkomunikaturik egon ziren.






ARGAZKIA: ESTHER EZKURRA

## Urtasketan Primenekobordan

Urtarrilaren 1ean baserrietako urtasketako argazkien artean, hau gelditu zen argitaratu gabe. Hain zuzen ere Primenekobordan ateria da.

# DONEZTEBE

**AZPIEGITURAK** ➜ OTEIZA AUZOAN

## Eskualdeko hondakin solidoak landuko dituen transferentzia planta udaberrirako irekiko da

Baztan-Bidasoaldeko 22.000 herritarrei emanen die zerbitzua

**TTIPI-TTAPA**

Aurreikuspenen arabera, udaberrian apirila aldean zabalduko dute Malerreka, Bortziriak eta Baztango hiri hondakin solidoak jasoko dituen gune berria. Denera Bidasoako 22.000 herritarrei emanen dio zerbitzua. Doneztebeko Oteiza auzoan kokatu dute, N-121A errepidearen magalean. 1,78 miloiko kostua izan dute lanek eta egungo zabortegiak kentzeaz gain, hondakinen garraio gastuak gutxituko dira, desplazamenduak heren bat murriztuko direlako, ingurumenari mesede eginez.

Doneztebeko hondakinen transferentzia planta kontrol eraikin batek, baskula batek eta bi nabek osatzen dute. Nabe hauetan toberak egoten dira. Planta eraikintzaren ondorioz, hondakinen garraioak eragiten dituen ingurugiro kalteak ere murrizten dira.

**URTEAN 8.000 TONA HONDAKIN**

Bidasoako hondakinak jaso, trinkotu eta murriztuko dira, El Culebrete (Tutera) edo Carcar-eko tratamendu gunera bidali aitzinetik. Bidasoaldean urtean banaz bertze 7.500 eta 8.000 Tona hondakin artean sortzen dira. Etorkizunean, soberakinak eta ontziak plantan bertan kudeatzea espero dute.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Zarauzko Amenabar eraikuntza enpresa ari da lanak egiten

**ELKARTEAK**

## Zuzendaritza batzordea aldatu du Kasinoak eta Jesus Mari Andueza da presidente berria

**TTIPI-TTAPA**

Kasino elkarteak urtarrilaren 20an egin zuen bere urteko batzarra eta bazkide aunitz hurbildu zen egoitzara. Zuzendaritza batzordea berritu behar zen. Aurtengo batzarra bitarte Javier Juanotena zen elkarteko presidentea eta Peio Sanz idazkaria. Hemendik aitzinera, berriz, Jesus Mari Anduezak beteko du presidente kargua, Asier Mutuberria izanen da presidente ordea eta Maria Jose Iribarren idazkaria. Idazkari orde lana Isabel Ibarrolak beteko du eta Bixente Gelbentzu eta Lander Erkizia izanen dira bokalak.

Aipagarria da azkeneko legealdian erabat berritu dela Kasinoaren teilatua. Eta hori, elkartearen dirukutxak erabat hustu beharrik gabe lortu da. Legealdi honetarako, berriz, sukaldeko kanpaiaren motorra aldatzeko intentzioa dute, baita kaldera hobetzea ere, baina lehenagotik errekuntza sistemarik onena zein den erabaki beharko dute bazkideek.

Epe luzeagora begira, goitiko bi solairuei zer erabilera ematen ahal zaien zehazteko afera arkitektonikoak moldatu beharko dituzte elkartean, baina egia da, gaur den egunean egoera ederrean dagoela Kasinoa eta bazkideek erabilera egokia ematen ahal diotela, dauzkan baliabideekin.





**OSPAKIZUNA ➜** URTARRILAREN 18 ETA 19AN

# Giro ederrean eta parte hartze handiarekin joan dira inauteriak

## Mozorro lehiaketa egin zen eta sari ederrak zozketatu ziren

**Mattin LARRALDE**

Aurtengo inauteak giro politarekin joan dira. Nahiz eta euriak izan nahi zuen protagonista, herritarrek kontra egin diote, kanpora ateriz.

Ostiralean, herrian barna buelta eman zuten trikitilariekin eta afaria izan zen.

Halere, egun nagusia larunbata izan zen. Goizetik gosariarekin hasi ziren gazteak eta ondoren puxkak biltzen etxez etxe ibli ziren. Gero, bazkaria izan zuten eta euriak arratsaldean eskaini zuen etenaldi batean mozorro desfilea egin zen herrian barna. Mozorrotuen arteko lehiaketa egin zen frontoian eta bertan lehenbiziko postuan Uxue gelditu zen, bigarren Xabi eta hirugarren Joxi. Ondoren zozketa egin zen eta lau sariak honela banatu ziren: Hilarion jatetxean bi lagunentzako afaria Mari Joseri egokitu zitzaion; bigarren saria, bainu etxean bi zirkuito, Kriseri; hirugarren eta laugarren sariak, orain Edurnek eramaten duen Julia pastelerian bina gosari ziren. Lehiaketan edo zozketan sariak irabazi edo ez,, denak beraien mozorroekin eta bestan parte hartzearekin bakarrik, giro ezin hobea jarri zuten herrian. Segi dezatela horrelako umorearekin urte askoz. Zorionak denei.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Giro ederrean ibili ziren gazteak inauterietan

### Liztor asiatikoari buruzko hitzaldia

Larunbat honetan, otsailaren 2an, berriz ere liztor asiatikoa buruz hitzaldi bat eginen da udaletxeko ganbaran, arratsaldeko 4:30ean. Duela aste batzuk egin zen hitzaldian gelditu ziren gaiak sakontzeko eta bakoitzak bizitutakoa kontzatzeko, oso interesgarria izanen da.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Kezka sortzen segitzen du liztor asiatikoak.



# ITUREN

GIZARTEA ➜ TRUKEA BULTZATUKO DU

## Denbora bankua martxan jarri du Malerreka Trukerrekak

Txetel tiraketan Joxelu Arozena eta Pili Goienetxe izan ziren txapeldun

Arkaitz MINDEGIA

Jadanik malerrekan ere martxan dago denbora bankua, Malerreka trukerreka-ri esker. Bizpahiru bileren ondotik eta Trukeados Bidasoaren laguntzarekin martxan jarri dute.

Diruan oinarritu beharrean, denbora hartuz, lan-ordua aintzat hartzen duen zerbitzua da denbora bankua.Zerbitzu hau, bakoitzaren astia modu berdinean trukatzeko prest dauden pertsona helduentzat dago pentsatua. Edozein izaten ahal da zerbitzua, denboraren trukean egindako guztiak berdin balio du, zerbitzu hori egiten pasatzen duzun denborak balio du. Bere funtzionamendua arras errexa da, adibidez: Arratsalde batean zure etxean elektrizitate istalazioan bi entxufe eta lampara aldatu nahi dituzu , bertan seguruenik lan hauek egiteko lagunen bat prest egonen da, bertan pasatzen duen orduak denbora bankura joanen dira ,gero berak beste lan batean erabiltzeko ibiliko ditu pasa dituen orduak. Denbora bankuan izena emateko *malerreka.trukerreka.net* eman behar da , on-line , bertan zerbitzuak ikus daitezke etab luze bat. Aurrerago ere bilera irekiak eginen dituzte.

Denbora bankuaz gain bertze lan bat ere badu eskuartean Malerreka Trukerrekak. Artisau eta lanbide azoka antolatzen dabil, jadanik bi aldiz antolatu dute Iturenen eta hirugarrena ere martxan dago. Hilabeteko bigarren igandetan izaten da azoka, beraz, hurrengoa otsailaren 10ean izanen da Iturengo plazan.

Abenduan eta urtarrilean egin zituzten jardunaldi edo azoka hauek, arront arrakastatsuak izan ziren. Eguraldiak ez du azoka gibelera botako, ona izanez gero plazan izaten dira postuak eta urtarrilean bezala euria bada, herriko etxeko estalpetan eta kapilan jarriko dituzte. Nahiz eta artisau eta lanbide azoka izan, Malerreka Trukerrekak garrantzia eman nahi die truke eta bigarren eskuko produktuei. Pixkanaka pixkana trukeak diruari lekua irabaztea nahi da.

Egitasmo honek aurrera segituko du jendearen erantzunaren arabera, oraingoz jendearen erantzuna izugarria izan da, bertan izan diren bi azoketan jende parrastada eta giro bikaina bizitu da.



UTZITAKO ARGAZKIAK
Hilabeteko bigarren igandetan egiten dituzte azokak.

MALERREKA TRUKERREKA TRUKEADOS

### Guraso elkartearen eguberrietako saridunak

Pulunpa eskolako guraso elkarteak eguberrietan saldutako boletoen sariak banatu ditu. Boleto hauek beraien diru iturria dira urtean zehar hainbat ekitaldi aurrera eramateko eta murrizketei aurre egiteko . Hauexek izan dira sariak eta saridunak: 1go zaria-0686 zenbakia: Joaquin Ayoroa eta Arantxa Goñi.
2. zaria-076 zenbakia: Jose Antonio Isasi eta Pilar Mindegia.
3. zaria-0293: Juan Miguel Benito eta Justi Ostolaza.
4. zaria-019: Lidia Beramendi.
5. Ariztegi harategiko bonoa-0603 zenbakia: Ramona Eizaguirre.
6. Ile mozketa bonoa Eider Ileapaindegian-0563: Malix Goizueta.

BEINTZA-LABAIEN

## Inauteriak asteburu honetan ospatuko dira

TTIPI-TTAPA

Hau idazterakoan, egitaraua guztiz zehaztu gabe bazegoen ere (inauterietan egitaraurik bada), asteburu honetan ospatuko dituzte inauteriak Beintza-Labaienen ere. Egun handia larunbata izaten da, baina ostiralean bilduko dira gazteak afaltzera eta lehenbiziko mozorroak ere bertan ikusiko dira. Urtero bezala, Labaiengo Herriko Ostatuan eta Iturrondo elkartean eginen dituzte otorduak. Larunbatean ere, ongi gosaldu ondotik, etxez etxeko puxka biltzea eginen dute akordeoilariaren laguntzarekin. Ezin zitekeen bertzela eta eguerdian, aizkora apustua ere plantatuko dute, nahiz eta oraindik ez jakin aizkolariak zein izanen diren. Goizean eskean bildutakoarekin bazkaldu eta arratsaldean herri inguruan eginen dute puxka biltzea, gero berriz ere mahaiaren bueltan, afaltzeko.





# ZUBIETA

**UDALA** ➜ BANDEREN LEGEA BETETZEKO

## Herriko Etxean bandera espainiarra eta plazan ikurriña jarriko ditu Udalak

Bere borondatearen kontra hartu behar izan dute erabakia

**Fermin ETXEKOLONEA**

Espainiako Gobernuak ezarri duen Banderen Lege berria burukomin ugari eragiten ari da inguruko udal guzietan. Horren inguruko mozioa eztabaidatu eta onartu ere egin zen Zubietan. Horrela azkenean, bere borondatearen kontra bada ere, Espainiako bandera paratu beharko du Udalak, beste ikur ofizialekin batera. Bere aldetik, udalak ikurriña paratuko du plazan, frontoiko sarian, Gobernuaren inposaketaren aitzinean ezadostasuna adierazteko.

### Herriko Ostatua itxitzera doaie

Herriko Ostatua berriz itxitzera doaie. Orain arte Gorka Fuentesek eramaten zuen, baina hilabete bukaeran utziko duela jakinarazi du. Udalak, berriz ere lehiaketara aterako du. Hasierako prezioa hilabetean 250 eurokoa izanen da. Ostatu eta jatetxeaz gain, 11 gela ditu eta bertan bizitzeko aukera bada.

### Txitxillo Elkarteko batzorde berria

Gaztegunea kudeatzen duen Txitxillo Elkartearen batzordea berritzea suertatzen zen urte hasieran. Azkeneko bileran aldaketak egin ziren eta Amaia Juanikorena izanen da elkarteko lehendakaria, Beatriz Babaze lehendakari ordea, Marina Argote idazkaria eta Lurdes Santesteban diruzaina.

### Urteko lehen sortzea

Enaitz Elizalde Mariezkurrena, 2013an jaiotako lehenbiziko herritarra da. Urtarrilaren 18an jaio zen. Beraz, zorionak Martxel eta Leire gurasoei eta Lourdes eta Juantto amatxi eta aitatxiei.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Familia berria herrira bizitzera etorria

Olga Garrote eta Miguel Reinak Meseret etiopiarra dute adoptatua eta herrian jarri dira bizitzen. Madrilen bizi ziren, baina bizia aldatzea erabaki dute.Olgaren ahizpa lehendik ere Zubietan bizi zen eta horregatik animatu dira etortzera. Ea laketzen duten eta denen artean laguntzen ahal diegun.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

### Uholdeak izan ditugu herrian

Erreka ttikiak ditugu herrian, baina adar eta zikinkeriekin trabatu eta gainezka egin zuten urtarrilaren 15ean. Jolasparkea azpian hartu zuen urak eta kortxozko zola ere altxatu zuen. Beharrik lau-bost lagunek, katiuskak jantzi eta lanerako tresnak hartuta, libratu zutela. Bizpahiru etxeko sototan sartu zen ura, baina zorionez ikarian gelditu zen dena.



# NARBARTE

**OSPAKIZUNAK ➜** HAURREN EGUNAREKIN HASITA

## Otsailaren 7tik 10era ospatuko dira inauteriak


ARTXIBOKO ARGAZKIA
Giro ederrean ibiliko dira gazteak aurten ere.

**Martin BERTIZ**

Urteko besta garrantzitsuenetakoak dira inauteriak eta aurten ere ospatuko ditugu. Buruari buelta batzuk emateko garaia edo edozein trapu zahar hartu eta besta eder bat egiteko momentua da.

Aurten, otsailaren 7, eta 10ean ospatuko dira Narbarteko inauteriak.

Otsailaren 7an, ortzegunean, Haurren eguna ospatuko da. Goizean mozorroturik etxez etxe ibiliko dira ttikienak. Ondoren bazkaria izanen da eta arratsalderako jokuak aginen dituzte.

Otsailaren 8an, ortziral arratsean, ostatuan afari batekin hasiera emanen diete helduek inauteriei eta gaua Agerralde musikalariak alaituko du.

Otsailaren 9an, larunbatean, Ostatuan gosaria izanen da. Ondotik, mozorroturik herrian barna buelta bat emanen dute gazteek eta gau partean afaria izanen dute ostatuan.

Otsailaren 10ean, igande arratsaldean mus eta partxis txapelketa ostatuan.

### Mus txapelketa ostatuan

Urtarrilaren 26an hasi zen herriko ostatuak antolatzen duen mus txapelketa.Larunbatear 22:00etan izanen da, nahi duenari irekia.


ARGAZKIAK: MARTIN BERTIZ

### Uholdeak urtarrilaren 15ean

Urtarrilaren 15ean itxura ederrakin eman genion hasiera egunari, euria egitetik ez zuen gelditzen eta urak bere bidetik atera egin ziren. Argazkietan ikus daiteke herrian eta Erreparatzean zer itxura zeukan ugaldeak.



**BERTSOLARITZA** ➜ INOIZKO PARTE HARTZERIK HANDIENA DA

# 31 bertsolari abiatuko dira Nafarroako txapelketa nagusian

## Martxoaren 23an izanen da finala Iruñeko Anaitasuna kiroldegian

**TTIPI-TTAPA**

Nafarroako Bertsolari txapelketak 41. edizioa beteko du aurten eta ziklo berri bat hasiko du. Izan ere, 2011. urtera arte urtero egiten zen Nafarroako Bertsolari Txapelketa, txapelketa horren ondotik bi urtetik behin egitea erabaki zuen Nafarroako Bertsozale Elkarteak.

Nolanahi ere, 2012-koa ez zen debalde izan eta Bardoak, Nafarroako taldekako bertso ekimen arrakastatsua antolatu zen. Aurten, berriz, Txapelketak bere ohiko formatura itzuli da. Oraingo honetan ez da soilik Nafarroako txapela jokoan dagoena, udazkenean hasiko den Bertsolari Txapelketa Nagusian ordezkari nafarrak zeintzuk izanen diren argituko du Txapelketak.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Hiriburuak hartuko du aurten ere, Nafarroako bertsolari txapelketaren finala.

Duela bi urte finala Iruñean egin zen eta harrera ikusita, aurten ere Iruñean bukatuko da Lizarran otsailaren 2an hasiko den txapelketa. Finala martxoaren 23an izanen da Anaitasunan.

Aurten inoiz baino bertsolari gehiago aterako dira plazara, 31. Horietatik seik lehen aldiz hartuko dute parte: Iruñeko Haizea Beruete, Oskar Sanz de Acedo eta Unai Uberetagoena, Lesakako Eneko Fernandez, Elizondoko Xabier Maia eta Oronozko Amaia Elizagoien. Azken urteotan atsedena hartu duten bi bertsolari eskarmentudun itzuli dira, Erika Lagoma lesakarra eta Joxema Leitza arbizuarra.

Saio guztietarako sarrerak aurrez internetez erosten ahalko dira, www.bertsosarrerak.eu atariaren bitartez.

### WEB GUNEA ETA SARE SOZIALAK

Web gune berria du Nafarroako Bertsolari Txapelketak. Txapelketaren jarraipena egin ahal izateko *www.nafarroakotxapelketa.com* web gunean informazio eguneratua eskainiko da. Horrez gain, *bertsoa .com* web gunean saioetako laburpenak ikusten ahalko dira. Sare sozialen bidez ere, Nafarroako Bertsolari Txapelketa segitzeko aukera izanen da. Facebooken Nafarroako Bertsozale Elkartearen bitartez eta Twitter-en (*@unibertsoa*).

### SAIOAK

- **Lizarra, otsailak 2**
Xabier Silveira, Josu Sanjurjo, Saioa Alkaiza, Eneko Fernandez, Xabier Maia eta Erika Lagoma.
- **Aldatz, otsailak 3**
Jon Barberena, Iñigo Olaetxea, Migel Mari Elosegi *Luze*, Patxi Castillo, Iker Gorosterrazu eta Oskar Sanz de Acedo.
- **Larraintzar, otsailak 9**
Julen Zelaieta, Aritz Saragueta, Oier Lakuntza, Ekaitz Astiz, Haizea Beruete eta Amaia Elizagoien.
- **Ituren, otsailak 10**
Eneko Lazkoz, Aimar Karrika, Iñaki Aleman, Egoitz Gorosterrazu, Alazne Untxalo eta Ioar Tainta.
- **Zubiri, otsailak 16**
Oskar Estanga, Ander Fuentes *Itturri*, Ainhoa Aranburu, Iban Garro, Joxema Leitza eta Unai Uberetagoena.

Ondotik, hiru finalaurreko jokatuko dira. Martxoaren 2an Atarrabian, Julio Soto 2011ko txapeldunak esperatuko die final laurdenetako bortz bertsolariri. Martxoaren 3an Etxarri Aranatzen eta martxoaren 9an Elizondoko Lur aretoan, seina bertsolari ariko dira. Finala, martxoaren 23an, 17.00etan jokatuko da Anaitasuna kiroldegian, zortzi bertsolarirekin.











ttipi-ttapa | 583 zk.
2013.01.31

# EZKURRA

**GIZARTEA** ➜ ARKUPEAK ELKARTEA

## Herriko jubilatuen festa otsailaren 10ean ospatuko da

Hildako bazkideak omendu ondotik bazkaria izanen dute Barrankan

**Fernando ETXEBERRIA**

Ohiturari eutsiz, Arkupeak elkarteko Ezkurrako kideek beraien festa ospatuko dute otsailaren 10ean. Hildako bazkideei omenaldia eskainiko diete eta Barranka ostatuan elkarrekin bazkalduko dute. Ziur solasaldia luzatuko dela, intere orokorreko gaiak eta noski Arkupeak elkarteari buruzkoak hizpide hartuta. Bazkarira joan nahi dutenek, 30 euro eman beharko dizkiote, Bixenta Perurena elkarteko ordezkariari.



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Herriko jubilatuak Barrankan bilduko dira aurten ere.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Nazario Zabalo, Ezkurrako azken artzaina

*Ezkurrako etxe, baserri eta borden argazki bilketa* liburuan jasotzen denez, herri inguruan, 79 borda daude. Ollin eta Malo ingurukoak dira nagusiak: Olegi eta Ezkain bordak. Kopurua handia da, baina ulertzekoa, garai batean ia herritar guztiek borda bat eduki eta familia guztietan artzainen bat bazela kontuan edukitzen bada. Gaur egun artzaintzan bakarrik jarduten duen inor ez dagoenez, borda gehienak alde batera utzi eta hondatuta daude. Bizilagun batzuk ardiak dituzten arren, herriko azken artzaina duela urte batzuk hil zen: Nazario Zabalo. Ezezagunekin gizon lotsatia eta urduria zen, baina familia eta herritarrekin, alaia eta goxoa. Makotsola bordara igotzeko, bi orduko ibilbidea egiten zuen. Askotan geratzen zen argazkiko txabola txiki hartan lotan. Azken urteetan, bueltakoan eguraldi txarra egiten bazuen edo elurra bazegoen, Ollinera jeisten zen eta han familiako kide edo lagunen batek jasotzen zuen. Lana eta familia ziren bere bizitzaren oinarriak. 86 urterekin hil zen eta hilerrian hartzen du atseden Juan Bautista anaiaren alboan. Herriko pertsonaia garrantzitsuen artean bere izena agertzea irabazia zuen artzainak: bere gizatasunagatik eta egin zuen lan guztiagatik.

**HISTORIA**

## Herriko pertsonaia historikoak gogoratuz

**Fernando ETXEBERRIA**

Ezkurrako web orrian, herriko pertsonaia garrantzitsuei buruz hitz egiten denean, hiru kirolari bakarrik aipatzen dira: Bengoetxea anaiak eta Mikel Mindegia. Baina informazio hori ez dago osatua. *Ezkurra, Herri Berezia* liburuan argi ikusten denez, askoz gehiago izan ziren eta dira herriko "pertsonaia garrantzitsuak".

Aznar Sanchez de Ezkurra Jauregiko jabea izan zen horietako bat. 1297an, "Ezkurra herriko nagusi" izendatzen zuen bere burua, "bertako mendiak eta ondasunak" bereak zirela argudiatuz. Bere oinordekoek, hori defendatzen zuten. Hartara, Ezkurrako herritarrak, beraien menpekoak zirela zioten, besteak beste herriko parrokoa izendatzeko eskumena zuten eta herriko alkateak izateaz gain, hamarrenak kobratzen zituzten. Horregatik da ezaguna jauregia *Hamarrendegia* izenez. Elizan ere eserleku bereziak betetzen zituzten eta elizan bertan lurperatu zitezkeen bakarrak ziren. Oinordekoetako bat Luis de Beaumontekin ezkondu zen. Eliza bisitatzen dutenek, bi leinu horien armarriak ikusi ditzakete aldarearen ezker aldean. Azken oinordekoa Zegamako Josefa Ladron izan zen. Honek, saldu zion jauregia Antonio Telletxeari 1976ko martxoaren 29an.

Kirolarien arloan, ezin ditugu ahantzi Fausto, Yoannes, Eugenio, Tito... Kultur eta hezkuntza arloan berriz, Pedro eta Asun Cestauk egindako lana aipagarria da.

Beste zenbaitek ere, sortzez Ezkurrakoak ez ziren arren, bere arrastoa utzi zuten herrian. Haien artean, Casimiro Saizar medikuak. Ezkurra eta Eratsunen jardun zuen eta bertan bizi izan zen bere heriotzera arte. 50 urtez, herriko parrokoa izan zen Juan Perez ere bai. Migel Pamplona irakaslea eta Ricardo idazkaria ere hemen hil ziren, urte luzez bertan lanean aritu ondotik.




ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA
Hamarrendegia jauregiko atea.




**DONEZTEBEKO INAUTERIAK** | otsailak 7, 8 eta 9



## EGITARAUA





### OTSAILAK 7, ortzeguna

**20:00** Trikipoteoa. **21:00** Afaria elkartean. **Afalondoan**, mahai inguruan musika.

### OTSAILAK 8, ortzirala

**09:00** Baserrietan eskea, Titi osatutik abiatuta. Gazteak bi taldetan banatuko dira eta behin baserrietako eskea egin eta gero, eguerdian berriz ere elkartu eta Leitzarako bideko tailerrak bisitatuko dituzute. **14:00** Bazkaria. Bazkalondoan musika izanen da. **21:00** Kuadrilen afaria.

### OTSAILAK 9, larunbata

**13:00** Bazkaria **16:30** Karrozen desfilea Aparan industrialetik aterata **22:00** Kuadrilen afaria.

















**Aritz MEOKI** | Doneztebeko gaztea

# «Gure buruari eta besteei irrika ederki pasatzen dugu»

Urteko "besta gustokoenak" dira berarentzat inauteriak eta ez du inoiz hutsik egiten. Besta barrendik bizi du, afarian, eskean, karrozen desfilean... hiru egunez atsedenik hartu gabe ibiltzen da. Inauterietan «dena libre» izaten denez, «antzerkia eta erokeriak eginez» primeran pasatzen duela dio. Doneztebar gehienak ere halaxe ibiltzen direla dio «karroza desfilea izugarria izaten da, jende pila bat eta denak paperean sartuta».

**Zergatik dira bereziak zuen inauteriak?**
Zalantzarik gabe, biltzen den jende pilagatik. Donezteben berez, herritar asko gara eta inauterietan inor gutxi geratzen da etxean. Karroza desfilean nabari da hori gehienbat. Izugarria izaten da. Jende pila bat eta denak paperean sartuta.Ikaragarrizko giroa bizi da. Urte guztiko besta hoberenak dira niretzat. Nik umea bezala pasatu dut eta baita herriko jende gehienak ere. Gure buruari eta besteei irri eginez ederki pasatzen dugu.

**Ortziralean baserrietan eskea egiten duzue . Koadrila handia biltzen zarete?**
40 bat laguneko kuadrila elkartzen gara goizeko 09:00etan Titin eta jende asko garelako bi taldetan banatzen gara. Trikitilari baten laguntzarekin joaten gara bi taldeak. Batzuk, Doneztebera sartu baino lehen dagoen auzora joaten gara bertan dauden hiruzpalau baserri bisitatzera eta besteak egiten dute buelta beste aldetik Sarratea, Olabidea ingurutik. 12:00ak aldera bukatzen dugu eta denok elkartzen gara. Leitzako biderako tailerretara joaten gara elkarrekin eta ohiturari eutsiz, bertan dauden mekanikoei pastak eta ardoa ematen dizkiegu. Horren ondotik, bazkaria egiten dugu. Dezente luzatzen da, seiak izaten dira mahaitik altxatzerako. Arratsaldean libre izaten da, tarte horretan elkarrekin joaten saiatzen gara, baina bakoitzak bere aldetik bukatzen du gehienetan. gero, gau aldera bakoitzak bere mozorroa janzten du taldeka, bikoteka, banaka... nahi duen bezala.








ARGAZKIAK: ARTXIBOA ETA DONEZTEBARRAK ELKARTEA

**Ortzegunetik astelehenera arte. Zein da irauteko sekretua?**
Egun asko izaten dira. Sekretua... gasolina pixka bat behar izaten da: alkohola, litroka... eta bazkaria. Ongi jan behar duzu derrigor. Ortziral goizean bi ordu eta erdiz ibiltzen gara eskean. Normalean bi ardo zato ematen ditugu eta bueltaka ibiltzen dira egun guztian zehar. Bigarren baserrirako gustora egoten gara. Inauteri giroak neke guztiak kentzen dituela erranen nuke.
**Larunbateko karrozak prestatzen denbora asko behar izaten da?**
Kuadrilaren arabera da hori, batzuk hilabete eta erdi lehenago hasten dira prestaketa lanekin. Gu nahiko azkeneko momentuan gabiltza aurten eta agian kotxea bakarrik aterako dugu. Karrozak berak baino gehiago niretzat garrantzitsuena egiten diren antzerkia eta erokeriak dira. Dena libre izaten da inauterietan.
**Bereziki gogoan duzun mozorroren bat?**
Aunitz izan dira, hobenetarikoa bikingoena izan zen. Egin genuen ikaragarrizko txalupa, denak arraunak hartuta. Bigarren arraun bueltarako, bikingo bikingo jarrita geunden. Guk ederki pasa genuen eta begira ari zen jendeak ere bai gure kontura. Ez dakit barkua osorik iritsi zen garajera. Disfraz eta paperean sartuta ederki pasa genuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aritz Meoki, mexikarrez jantzita.



























## ELIZONDOKO INAUTERIAK | otsailaren 7, 8 eta 9a



# Orakunde, mozorro desfileak, jantziloren erretzea... larunbatera arte atsedenik ez

## EGITARAUA



### OTSAILAK 7, ortzeguna

**Oilar Dantza** edo **Orakunde** eguna ospatuko dute Elizondoko ikastetxeetako haurrek. Urteroko kalejira, bazkari eta jolasek ez dute hutsik eginen. Arratsalde partean berriz, **oilarren ordua** izanen da.



### OTSAILAK 8, ortzirala

**10:00 Mozorroen elkartzea** eginen dute Gaztetxearen parean eta ondotik puxka biltzeari emanen diote hasiera.

**14:30 bazkaria.**

**16:00 haurren desfilea** (Elizondoko San Francisco Javier eskola publikoa, Baztan ikastola eta haurtzaindegikoak). Eta desfilearen nekeak kentzeko, **txokolatea** eta **dantzaldia** haurrendako. Ondotik, **mozorroen ibilaldia** musikarekin.

**22:00** Jantziloren erretzea plazan.



### OTSAILAK 9, larunbata

**11:00 Mozorroak elkartzeko** hitzordua. Salda eta ziztor jatea izanen da Ikastolako Parkean. Ondotik, herrian barna ibiliko dira mozorroak, trago batzuk hartu bidenabar. Eguerdian, koadrila bakoitzak bere aldetik bazkalduko du. Bazkalondoan, elkartuko dira berriro eta inauteri giroa nabaria izanen da.Izan ere, **18:00**etan **Mozorroen desfilea** hasiko da.

**Mikel SOBRINO** | Elizondoko alkatea

# «Paperean sartu behar da lotsak etxean utzita»

Haurra zela jantzi zuen lehenengoz mozorroa eta ordu ezkeroztik ia urtero berria estreinatu du «etxean zerbait landuz». ideia «aunitz» izaten dituela dio, baina «arras azken orduan» ibiltzen dela beti. Garai bateko inauterien eta oraingoen artean «aldea handia dela» aitortzen du. Duela lau urte «ia hil zorian zeuden inauteriak salbatu» zituztela , baina «garai bateko ekitaldiak berreskuratzeko ahalegina» ere egin behar dela uste du.

**Noiztik bizi dituzu inauteriak?**
Betidanik. Umetan hasi nitzen mozorrotzen eta danborradan ateratzen eta ia urtero atera naiz. Aitortu behar du adinarekin gauzak beste modu batera ikusten direla. Egia esan garai batekoen eta oraingoen artean aldea handia da. Lehen igandeak indar handia zuen, orain berriz larunbata da egunik garrantzitsuena. Karroza aunitzek hartzen dute parte eta oso giro polita sortzen da guztien artean.

**Baretu da egun aldaketarekin sortutako eztabaida?**
Orokorrean baietz erranen nuke. Nahiz eta oraindik batzuk, lehengora bueltatu nahi duten. Nire ustez, erabaki logikoa izan zen eta emaitzak horrela izan zela erakutsi du. Garai batean, asteartean 50 pertsona inguru ateratzen ginen eta hori herri osoarendako arras gutti zen. Inauteriak asteburura igarota ia hil zorian zeuden inauteriak salbatu genituen. Horrela indartu egin dira inauteriak, askoz jende gehiago elkartzen delako.



UTZITAKO ARGAZKIA
Mikel Sobrino, estetizistaz mozorrotuta.

**Egitarau aldetik berrikuntzarik izanen da aurten?**
Ez, urteroko egitaraua mantenduko da. Danborrada berreskuratzeko saiakera egiten ari gara, baina aurten ziurrenik ez dugu lortuko. Ezin dugu ziurtatu danborrak garaiz lortuko digutunik. Nahiko berandu gabiltza. Gauzak hobeki lotzen ez baditugu, datorren urterako utziko dugu. Saiakerarekin jarraitu behar dela uste dut. Gure garaian danborradaren inguruan giro ederra izaten zen eta hori berreskuratzea polita litzateke.

**Alkate berria zarenez, inauteriak ospatzeko modua aldatuko duzu?**
Ba aurten bai, Eskoziara noalako, beraz ez naiz inauterietan egongo. Gizakunde ospakizunetan bai. Baina ospatzeko modua ez zen bestela deustan aldatuko. Intentzioa berdina izango zen, guztiaren gainetik ongi pasatzea. Ahalik eta jende gehien elkartzea.

**Denboraz hasten zara mozorroa prestatzen?**
Beti arras arras azken orduan ibiltzen naiz. ideia aunitz izaten ditut, gero ez dut konkretatzen eta azken orduan beti, korrika ibiltzen naiz. Eskuz zerbait egiten ere saiatzen naiz. Normalean egindako mozorroak erosi beharrean, etxean lantzen ditut. Nire tailakoak ez dira gehiegi izaten ere eta moldatu egin behar izaten dira.

**Orain artekoetatik zein duzu mozorro gustokoena?**
Ijitoarena behin baino gehiagotan errepikatu dugu eta oso gustokoa dugu. Azken karroza egin genuena kuadrilan ere, streeptesarena polita izan zen. Ongi pasatzeko paperean sartu behar da, lotsak etxean utzita. Ijitoz atera ginenean adibidez eskean, dantzan ibili ginen eta ahuntza ere ez genuen falta.






























## BERAKO INAUTERIAK | Otsailaren 2, 6, 7, 10 eta 11



## EGITARAUA





Beran bi asteburuetan ospatzen dira inauterietako ekitaldiak. **Kaldereroak** etorriko dira otsailaren 2an, inauteriak gertu direla iragartzeko. Arratsaldeko 19:00etan Illekuetatik abiatu eta Herriko Etxeko plazara joanen dira.

### OTSAILAK 6, asteazkena

**16:30** Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak antolatutako Inauteri besta ospatuko da. **Kalejira** eginen dute herrian barna, Zahar Etxea bisitatuz.

### OTSAILAK 7, ortzeguna

**Goizean** haur taldeak **puxkak biltzen** ibiliko dira. **15:45** Ortzegun Gizen arratsaldeko **ibilbidea** Suhiltzaileen parketik Eztegara pilotalekura abiatuko da. Euria eginen balu, zuzenean Eztegara pilotalekuan dute hitzordua 16:00etan. **Ondotik,** Pottola taldearen emanaldia.

### OTSAILAK 10, igandea

**10:00 Inudeak** eta **artzaiak** Eztegara pilotalekutik abiatuko dira, goiz guztian zehar herrian barna ibiltzeko. Eguerdian atseden hartu eta **18:00**etan izanen du segida, Eztegara pilotalekutik Altzateko karrikara joanen baitira. Entsaioak otsailaren 2, 6 eta 8an eginen dira. Bazkarirako txartelak ere entsaio egunean salduko dira.

### OTSAILAK 11, astelehena

Inauterietako Astelehenean, **goizean zingar-arrautzea** eginen da. **19:00-20:00** Massaradunba Taldearekin **Txarantukada** eginen da Altzateko karrikan.








ARTXIBOKO ARGAZKAI
Iñaki Eskudero, koadrilakoekin batera, futbol amerikarra irudikatzen zuen karrozan.

**Iñaki ESKUDERO** | Berako gaztea

# «Neretzat urteko bestarik politenak dira inauteriak»

Gure Txokoa dantza taldeko kide bezala, iñude eta artzaiak konpartsaren antolaketan aritzea suertatzen zaio Iñaki Eskuderori. «Ez du lan handirik eskatzen, parte hartzen duten guziek badakite zer egin behar duten, eta zalantzak entsaioetan uxatzen dira», aipatu digu. Baina iñudez aparte, errege bezala ere atera da konpartsan eta karroza ateratzea ere gustatzen zaio: «Urteko bestarik politena da nere ustez».

**Iñude eta artzaien artean, batzuk taldeko dantzariak zarete, bertzeak ez… diferentzia handia somatzen da?**
Ez sobera, dantza mundu guziak daki eta ttikitatik ikasten da. Halare, urtero dantza taldeko bikote bat jartzen da lerroen hasieran taldeak bikotea jarraitu dezan. Dantza taldeko gainontzeko bikoteak ere banatzen gara, pixkot koordinatuagoa atera dadin baina orokorrean, diferentzia ttikia da.

**Zer da egun horretako zailena?**
Seguraski ohatzetik jeikitzia aurreko egunean Lesakako iñauteriak izanda! Berez zailtasunik ez dago besta giroan egiten den zerbait delako, zailtasunik handiena aurreko egunetakoa izaten da, beharrezko gauza guztiak antolatzen.

**Iñudez edo konpartsako bertze pertsonaje bat eginez… Nola gustorago?**
Ez da errexa erabakitzen, desberdina da. Konpartsan antzerki gehiago egin behar da dantzatu beharrean eta hagitz ongi pasatzen da. Iñudez aterata berriz, taldeko parte sentitzen zara, betiko dantzak egiten dituzu eta igual bertze berexitasun bat du. Urte batez apezaz ere atera nintzen, eta azken momentuan atera nintzelako.

**Zer da inauterietan gehien gustatzen zaizuna?**
Aurreko astetan karroza prestatzea hagitz gustoko dut, gu koadrila ttikia gara eta lan handia hartzen dugu baino hagitz ongi pasatzen dugu. Egunean bertan gehien gustatzen zaitena goizeko buelta eta eguerdi aldeko giroa da. Baserritatik ibili eta gero jende guzia herrian biltzen da eta giro hagitz polita egoten da Beran.
























**LESAKAKO INAUTERIAK** | otsailaren 7, 10 eta 11



# Zakozarrak, mairuak eta aunitzez mozorro gehiago Lesakako inauterietan

## EGITARAUA

### OTSAILAK 7, ortzeguna

**Goizean**, Herriko haurrak etxez-etxe ibiliko dira Arraultze-Arraultze eskean. **17:00** Tantirumairu Ikastolan berendua, musika eta mozorro besta.

### OTSAILAK 10, igandea

**08:00**etatik aintzinera GOITARRAK Auzoberri, Endara eta Zala auzoetan. **17:00** trikitixa taldeak lagunduta eta Plaza Zaharretik abiatuz, Mairu eta Zaku Zahar Ttikien kalejira herrian zehar. **19:00**etan Zaku-Zaharrak Musika Bandarekin Arrano Elkarteak antolatua. **18:00**etan Dantzaldia Plaza Zaharrean.

### OTSAILAK 11, astelehena

**08:00**etatik aintzinera Fraindarrak "arraultze arraultze" ibiliko dira baserrietan zehar **12:30**etan iñauterietako orgak Plaza Zaharrean. **18:00**etan Dantzaldia Plaza Zaharrean.







**Garbiñe ALTZUGARAI** | Lesakako gaztea

# «Neska bakarra izanik ere, ederki pasatzen dut Fraindarrekin batera»

Ortzegun Gizeneko Arraultze-Arraultze eskea, igande arratseko zakozarrak eta mairuak, asteleheneko karrozen desfilea…Osagai ugari izaten dute Lesakako inauteriek, baita hutsik egiten ez duten bertze bi koadrilek ere: Goitarrak eta Fraindarrak… Batzuk Endara, Zala, Auzoberri, Katazpegi eta Nabaz aldeko baserrietan ibiltzen dira, bere jertse gorri, zapi koloretsu, kaskabilak eta kastañuelak mugituz, herrira ailegatu arte… Bertzeak, izena ematen dien Frain auzoan ez ezik, Otsangon eta Izotzaldean ere ibiltzen dira, blusa beltza eta boneta berdea jantzita.

Hain zuzen, Fraindarrak taldean ibiltzen den neska bakanetako bat, **Garbiñe Altzugarai** izan dugu solaskide. 23 urte bertzerik ez baditu ere, aurten bosgarren urtea beteko du taldean ateratzen. Bera herrian bizi bada ere, aita Frain auzoko Joanekoborda baserrikoa da eta berak animatuta hasi zen ateratzen: «Bai, aitarengatik hasi nintzen ateratzen». Fraindarraz ateratzeaz gehien gustatzen zaionari buruz galdetuta, erantzuna garbi du Garbiñek: «Ambiente polita sortzen da eta baserriz baserri ibiltzean, hagitz ongi hartzen gaituzte toki guzietan».
Hainbertze gizonen artean ere ederki zaintzen dutela aipatu digu irrika. Halere, seguru akordeoiaren doinua ongi ez segitzeagatik eskobarekin behin baino gehiago jo dutela, bertze taldekideak bezalaxe, baina horregatik ez du inolako aitzakiarik paratzen. Lesakako inauterietan dena gustatzen zaio Garbiñeri, baina Fraindarrekin ateratzen denetik, ez da karrozatan ateratzen, ezta zakozarrekin ere: «Ez dut ohiturarekin eta oraingoz, Fraindarrekin aski dut inauterietan ederki pasatzeko, ez dut gehiagoren beharrik». Akordeoia jotzen duen bertze neska bat ere izaten dute taldean, baina neska gehiago animatuko lituzke ateratzera, «ongi pasatzen dela eta animatzeko» erranez. Garai batean taldean Frain auzoko mutilak bakarrik ateratzen baziren ere, orain ez da derrigorrezkoa ez fraindarra ezta mutila izatea ere. Gainera, «ez dela batere nekagarroa» aipatu digu Garbiñel.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA
Garbiñe Altzugarai, Fraindarrak taldearekin puxka biltzen.





















**ETXALARKO INAUTERIAK** | otsailaren 7, 10, 11 eta 12a



# Ortzegun gizen egunean, herriko ttikienek emanen diote hasiera inauteriei



Ortzegun Gizenarekin hasiko dira Etxalarren ere inauteriak. Goizean etxez etxe ibiliko dira neska-mutikoak *Ortzegun Gizen, Ortzegun Gizen, zingar-arraultze bat ez bada bertze* eskatuz. Arratsaldean, **14:30ak** aldera, plazan izanen dute hitzordua Landagain eskolako ikasleek eta handik abiatuta, karrikaz karrika beraien antzezlanak eskainiko dituzte.

## EGITARAUA

### OTSAILAK 10, igandea

**Zaldun Inaute** egunean ez da aparteko ekitaldirik inauterien egitaruan, baina hori bai, herriko ostatu eta jatetxeak gainezka izaten dira, hainbat adinetako **Kinto bestak** izaten baitira. Eguerdi partean aperitiboa, ondotik bazkaria eta arratsean poteoarekin segituko dute.

### OTSAILAK 11, astelehena

**Astelehen Inaute** egunean herriko gazteak bi taldetan banaturik batzuk **goiko auzoan eta bertzeak beheko auzoan eskean** ibiliko dira egun guzian zehar. 08:00etan abiatzen dira eta **bazkaria** Armitxen eta Usazaleen etxolan egiten du talde bakoitzak. **21:00**etan pintxoak Elutsa ostatuan

### OTSAILAK 12, asteartea

**Astearte mozorro eguna** izaten da hondarrekoa Etxalarren. **12:00**ak aldera herriari itzulia emanen zaio mozorro eta karrozekin. **14:00**etan bazkaria Herriko Ostatuan. **18:00-20:30**era Beñat akordioilariarekin dantzaldia plazan **19:00**ak aldera taloak emanen dira.







## GOIZUETAKO INAUTERIAK | otsailaren 10, 11 eta 12a



# Astelehen eta asteartean puska biltzea eginen dute mozorroek baserrietan eta herrian

## EGITARAUA





### OTSAILAK 10, igandea

**17:00** gaztetxoen **Zahagi-dantzarekin** emanen diete hasiera inauteriei. **19:00etan erromeria** plazan Aierrik taldearekin. Eguna amaitzeko, **21:30** Mozorroen **afaria**.

### OTSAILAK 11, astelehena

**Goizetik** mozorroak ibiliko dira baserrietatik **eskean**. Eskean ez dabiltzenek ere aukera izanen dute. **10:00** Plaza apaindu eta luntxaren ondoren **Konparsa** (Gaia: 60-70.hamarkada) ibiliko da herrian zehar. **13:30 bazkaria** Umore Ona elkartean. **16:00-17:00 jokuak** izanen dira plazan eta ondoren, musika Elkartean Ganyeiko Luixen eskutik. **18:30** txokolatada eta **mozorroen etorrera** herrira, dultzaineroen laguntzarekin. **19:00 Erromeria** Aierrik taldearekin. **22:00** mozorroen **afaria**.

### OTSAILAK 12, asteartea

**09:00** Mozorroen **gosaria**. **Ondotik,** herriko **kaleetan** zehar ibiliko dira. **Eguerdian,** bazkaria. **17:00 Zahagi-dantza.** **19:30** Erromeria Gugaz taldearekin. **20:00** Karrozen desfilea **22:00** mozorroen afaria. **02:00** Disfraz **lehiaketa** Gaztetxean.







































**IGANTZIKO INAUTERIAK** | otsailaren 1 eta 2a



# Berrizaunetik hasi eta Frain auzoraino, eskean hasiko dituzte gazteek inauteriak



Otsaileko lehenengo asteburuan eginen dituzte inauteriak igantziarrek. Herriko gazteak eskean, besta giroa etxe eta baserri guztietara zabalduko dute. Ekitaldi nagusiak asteburuan badira ere, Ortzegun Gizen egunean mozorrorik ez da faltako, eskolako ikasle eta irakasleek eguna ospatuko baitute.

## EGITARAUA

### OTSAILAK 1, ortzirala

**Goizean**, Mozorroak elkartu eta etxez-etxe eta baserriz-baserriko **eskeari** ekingo diote. **Berrizaun** auzotik hasi, **Bidegurutze aldean** dauden etxe berriak bisitatu eta **Frain** auzoraino iritsiko dira.
**14:00** Bazkaria eginen dute eta indarrak hartu ondotik, **15:30** aldera **herrian** eta **Sarrola** inguruan ibiliko dira eskean. Egunari **afariarekin** emanen diete amaiera.



### OTSAILAK 2, larunbata

**08:00** Mozorroak elkartu eta **Irisarri** auzotik hasita, herri bazterreko bertze auzoetan ibiliko dira gazteak: **Elusta, Unanu** eta **Piedade** auzoetan.
**Arratsaldean** haurrak **kalejiran** ibiliko dira. **18:00-20:00** musika izanen da haurrentzako. **19:00-20:00** aldera, etxez etxe eskean dabiltzanean banatuko dituzten **boletoen zozketa** eginen dute gazteek, herrira ailegatzen direnean.
**Gauean, afaria** eginen dute eta **gauerditik** aitzinera, musika izanen da goizaldeko ordu ttikiak arte.





# GOIZUETA

**GIZARTEA** ➜ OSPAKIZUNEZ BETEA DATOR OTSAILA

## Karnabala girotzeko badatoz bi egun ero, Santa Ageda eta Kalderero



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurten ere kaldereroek iragarriko dituzte inauteriak.

### Kantuak prestatzeko entsaioa otsailaren 2an eginen da

**TTIPI-TTAPA**

Inauteriak izanen dira datozen asteetan festa giroaren oinarria, eta horien egitarauaren berri, luze eta zabal, aldizkari honen gehigarri Berezian topatuko duzue. Baina bestelako ospakizunak ere iragarri dituzte. Honela, “Karnabalak girotzeko badatoz bi egun ero Santa Ageda eta Kalderero" izenburupean, bi egun berezi horien berri ere eman dute.

Santa Ageda otsailaren 4ean eta Kalderero otsailaren 9an ospatuko dituzte.

Bi egunetan, irteera herriko eskoletatik arratsaldeko 6:30ean eginen dute. Kantuak prestatzeko entsaioa, berriz, otsailaren 2an larunbat arratsaldeko 7,30ean eginen da herriko eskoletan.

**INAUTERIEN ONDOTIK**

Beste aldetik, azkeneko urteetako ohiturari eutsiz, Karnabaletako asteartearen ondotik ere, segida izango du pesta giroak. Hurrengo larunbatean, otsailaren 16an, Igandea txarangarekin poteoa eginen da eguerdian.14:00etan Mozorroen bazkaria izanen da. 17:30ak aldera poteoa eginen da Igandea txarangarekin Izkiña tabernatik hasita eta gauean Kontzertua izanen da Gaztetxean.

**Euritea**

Euria gogotik egin du hilabete honetan, baina halere, espero baino gorabehera gutxiago sortu ditu. Urtarrilaren 15ean Olatson bidera atera zen erreka eta Alduntzingo zubiaren gainetik ere ibili ziren Urumeako urak, baina ez zen, beste batzuetan bezala, errepide nagusia itxi beharrik izan.

# ARANO

**OSPAKIZUNAK** ➜ OTSAILAREN 2AN INAUTERIAK

## Zomorroek alaitasun eta soinu ugari banatuko dute

### Arratsaldean zahagi dantza eginen dute

**Ainhoa ANSA**

Urtea hasi eta aire batean datoz iñauteriak! Ustekabean urtarrila pasatu da baina oraindik memorian ditugu pasa den urtearen azkenean izandako oporrak eta lagun arteko elkartzeak. Olentzerorekin etxez etxe kantari atera ginenekoa, gero egin ziguten bazkari ederra, egun horretako saskia Aurorari tokatu zitzaiola pozez hartu genuenekoa, Pinok zozketatu zuen zeramikazko oparitxoa... nola ez, Olentzeroren eta, kasuren batean erregeen opariak, lagunekin jostaketa eta solasketa luzeak... Kontsejun erregge inguruan egin zen txokolate eta txurro jatea...

Atzean gelditu ziren, bai, baina ez dira oraindik ahaztu momentu on guzti horiek! Eta orain beste soinu eta irripar batzuk ikusteko aukera datorkigu! Inauterietan Aranon, etxez-etxe soinu eta alaitasun ugari partituko dute zomorroek otsailaren 2an, Izer eta Alabier trikitilarien laguntzaz. Gagoeneko jantzi zuri eta zinta koloredunak prest izango dira etxe gehienetan!

Urteroko bueltarako prest zomorroak eta arratsaldeko zahagi dantzarako ere bai! Eta gauerako, azken urteetako aldean, aldaketa xamur eta gozo bat: Julio Soto eta Sustrai Colina lagun hartuta, bertso afaria izango da San Roke Elkartean. Afarira joan nahi duenak izena eman beharko du urtarrilaren 31 baino lehen Kontseju tabernan, 948 514279 telefonoan.



ARGAZKIAK: AINHOA FRAISOLI ETA AINHOA ANSA

Gabonetako ospakizunen ondotik, gainean ditugu inauteriak.

# LEITZA

**GIZARTEA** ➜ OSASUN ZERBITZU DUINAK ESKATUZ

## Nafarroako Gobernuaren murrizketen kontrako kanpaina egiten ari da herritar talde bat

20:00etatik aurrera ez dugu medikurik izango Osasun Etxean

**JM BARRIOLA**

Herritar talde batek, Nafarroan ematen ari diren murrizketen aurrean kezkatuta, kanpaina bat jarri dute abian. Ekainean, sei pertsonaz osaturiko osasun murrizketen aurkako taldea sortu zen. Egindako lanaren ondoren agerraldi publiko bat egin zen, idatzi bat irakurriz eta 600 herritar bildu ziren plazan. Ondoren Udalak osasunean murrizketen aurkako mozioa onartu zuen. Azaroan berriz lantaldea martxan jarri zen, ilbeltzean zehar, herri guztian karteltxo batzuk jarri dituzte egoera salatzeko, honekin batera Karrape irratian saio berezi batzuk prestatu dituzte arlo bakoitzean jasatzen ari den murrizketek, herriari nola eragingo dioten azaltzeko. Eskolan beste lantalde bat osatu da zentzu honetan. Ioteri ondoren mahai inguru bat antolatzeko asmoa dute. Parlamentutik aditu bat ekartzeko asmoa dago eta talde iraunkorra osatuko da, gaiari jarraipena zuzena egiteko.

Osasun arloan adibidez Leitza eta Mendialde guztian eta baita Pirineotako herrietan egiten dituzten osasun-guardiak ezabatu nahi dituzte. Arratsaldeko 20:00tatik aurrera ez dugu medikurik izango osasun etxean. Ordu horretatik aurrera bere beharra izanez gero, medikua abisatu eta etorriko ote den itxarotea besterik ez da gelditukо. Honetaz gain kezka gehiago badituzte, Anbulantzien ordainketa? Kopagoa? Etorkinak oinarrizko zerbitzuak ordaintzen… osasun publikoa suntsitzeko asmoak dituztela eta kanpaina martxan jarri da herrian hau dena salatzeko eta herritarrak mugitua razteko. Beren nahia, herritarrak elkar hartuta presioa egitea da, horrela lortuko baita hau dena geldiaraztea.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

### Santa Ageda bezpera

Beste urte batez usadioari jarraituz, otsailaren 4an goizetik ibiliko dira herriko gaztetxoenak eskean, kantu kantari… Santa Ageda bezperako diru eta gozoki biltzen. Alke kultur taldeak deituta, arratsalden 6:30etan karrapetik hasita herritik kalejira eginen da, koplak eta bertsoak abestuz, bertsolariak eta trikitilariekin batera. Ondoren Karrapean mokadu goxo goxoa dastatuko dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Kaxkabeltza elkartearen bonoak eta beste ekitaldiak

Kaxkabeltza dendari, ostalari eta zerbitzu elkartea bono erregaloak banatzen ari da hilabete honetan. Errege kabalgatan erregeek atera zituzten 3 irabazleen izenak zozketa: 1. Mila Sestorain (500 euro), 2. Itziar Telletxea (400 euro) eta 3. Javier Iparragirre (300 euro). Nahi zuten denda, ostatu eta zerbitzuetan gastatu zezaketen. Itziar Santxez kontu kontalaria ere ekarri zuten eskolako jangelara eta ondoren txokolatada izan zen.

### Mendibil mendi taldeko urteko egutegia

Aurrerako Mendibil medi taldeak, 2013 urteko egutegia azaldu berri du. Mendi irteera interesgarriak egiteko asmoa dute. Egitarauaren barruan BTT irterak hilero aginen dira ere. Parte hartzeko federatuta egotea gomendatzen dute. Ekitaldi guztien berri eta zehazpenak aurretik azalduko dituzte, egutegi honetan azaltzen diren irteerak ere arrazoi ezberdinegatik aldatu daitezke. Hona hemen egutegia: Ilbeltzean: Donibane-Jaizkibel-Hondarribia. Otsailean: Ipar eskia, Somporten (ikastaroa aukeran) ume eta helduentzat. Martxoan: Mendiko eskia Bareges (Frantziako Pirinioan). Apirilean: Olano, Altzania mendilerroan, Araba. Maiatzean: Leitza-Okabio-Areso-Leitza. Ekainean: Ogoño-Elantxobe Bizkaia. Irailean: Elo Mendi, Izko mendilerroa. Urrian: Aurrera Eguna (5ean), Nafarroko kluben eguna, Perretxiko asteburuko irteera. Azaroan: Azkaine-Larun-Lizuniaga.( Lapurdi) Abenduan: Leitza inguruan itzulia eta bazkaria. Federatzeko egunak. Informazio gehiago nahi duenak blogean begiratu dezake: *http://www.blogak.com/mendibilaurrera*

### Arkupeak elkartearen hitzaldia

Otsailaren 19an, hitzaldia dago Arkupeak Taldeak antolatuta. Maite Gongora notarioa testamentuak, herentziak eta familikideen arteko dohaitzaren inguruan arituko da zinean.

# ARESO

**OSPAKIZUNAK** ➜ OSTIRALETIK IGANDERA

## Ekitaldiz beterik datoz asteburu honetako inauteriak

Herritarren antzerkia izanen da lehenengoz

**Juana Mari SAIZAR**

Iñauteriak asteburu honetan ospatuko dira herrian. Azken urteetan bezalaxe, asteburu osoa hartuko dute

Otsailaren 1ean, ostiralean 18:00etan eskea egingo da herrian barna plaza zaharretik hasita. 21:00etan Lagun artekoen afaria Pake-Tokin.

Otsailaren 2an, larunbat goizeko 9:00etan Lagun Artekoen gosaria eta ondoren baserrietako eskea Ingo Al Deuko trikitilarien laguntzarekin. 17:30 inguruan mozorro desfilea herrian barrena. Ondoren musika plazan. 19:00-etan antzerkia udaletxean herritarrek eskainia. 21:30ean herri afaria Pake-Tokin. Ondoren musika Ingo Al Deuko trikitilarien eskutik.

Igandean, azkenik, 14:00etan herri bazkaria izango da Larrean bertsolariekin.



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

### Gabonetako eskeko dirua Gizarte Zerbitzuetarako

Gabonetako eskean bildutako dirua gizarte zerbitzura bideratu behar dute, behar dutenei laguntzeko eta umeek gainera, meriendatxoa ere egin ahal izan zuten bildutako janariekin.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

### Urteko lehen elurtearekin gustura

Urteko lehendabiziko elurtea izan genuen duela bi aste, ez zuen asko iraun, euri asko egin baitzuen hurrengo egunetan, errekak ere atera ziren, kalterik sortu gabe, baina umeek ongi aprobetxatu zuten unea.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

### Birtziklapena bultzatzeko furgoneta

Joan den asteazkenean bezala, bateria, aerosol, pila, etxetresna txikiak… biltzen dituen furgoneta izango dugu erregularki Plaza Zaharrean, birtziklapena bultzatu asmoz. Sastinean pilen edukiontzia ere jarri dute.



# BAZTAN

**GIZARTEA** ➜ LAZKAOKO ASTOTXO EGUNEAN

## Bere esperientziaren berri eman dute Ameriketan ibilitako artzain baztandarrek

Joxe Iturralde eta Alejandro Cordoba azpilkuetarrak eta Elizondoko Rafael Lizasoain gan ziren

**TTIPI-TTAPA**

Baztango artzain amerikarrek bere esperientziaren berri eman zuten Lazkaoko Astotxoaren Egunean. Euskal Artzainak Ameriketan elkarteko ordezkariekin batera, Alejandro Cordoba eta Joxe Iturralde azpilkuetarrak eta Rafael Lizasoain elizondarra joan ziren urtarrilaren 13an Lazkaora eta bere oroitzapenak azaldu zituzten. Hala nola, Alejandrok lur azpian nola sukaldatzen zuten, Joxek kanpamenduaren inguruan hartza zebilela eta eraman zuen ikaria edo Rafaelek, aretzearen neurria zuen ardia harrapatu eta lurretik arrastaka eraman zuela gogoratu zuten.

Erakusketa ikusgarria plantatu zuten Lazkaon, ardi kanpo eta guzi.



ARGAZKIA: EUSKAL ARTZAINAK AMERIKETAN

Hiru artzainak erakusketako ardi kanpoan.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Xauliren Eguberrietako saskia Oizko Juanito San Miguelentzat

Ezintasun psikikoa duten pertsonekin lan egiten duen elkarteak urteroko legez zozketa egin du eguberrietan. Beraien lanarekin segitu ahal izateko diru iturria bihurtu da zozketa eta eskualdeko komertzioen laguntza izaten dute horretan, haiek emandako produktuekin saski ederra osatzen baitute eta denei eskerrak eman dizkiete Xaulitik. Zozketa, urtarrilaren 6an izan zen, Haur Loteriarekin batera, eta saritua suertatu zen zenbakia 875a izan zen. Oitzeko Juanito San Miguel izan zen sariduna. Urtarrilaren 12an, bere emazteak jaso zuen saria Xauliko partaideen eskutik. Larunbatero ekintzak antolatzen ditu Xauli elkarteak Elizondon. Zozketarako txartelak saltzen eskuratutako diruari esker, beraien lanean segitzeko aukera izanen dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Joseba Garmendia, krisiaz solasean

Joseba Garmendia EHUko irakasle eta ekonomilaria krisi testuinguruan tokiko indarguneetan oinarrituta giza-garapen iraunkorraren norabidean komunitatearen aitzinamendurako herri-esperientzien inguruan mintzatu zen urtarrilaren 18an Elizondoko Arizkunenean emandako solasaldian.



**GIZARTEA** ➜ URTARRILAREN 17AN EGIN ZEN ZOTZ

# Oraino ez da jaberik agertu San Anton eguneko aretzearentzat

## Otsailaren 6a izanen du saria eskuratzeko hondar eguna

**TTIPI-TTAPA**

Giro ederrean joan zen San Anton eguna Elizondon eta urteroko ohiturari eutsiz, goizetik, Francisco Joaquin de Iriarte Zahar Etxearen aldeko errifaren azken txartelak saldu zituzten albinteek karrikaz karrika. Amaiurko eskolako Nahia Zaldai, Urko Isuskiza, Antton Urrutia eta Malen Beikak atera zituzten bolatxoak. Lehenbiziko saria, aretzea 3.288 zenbakiari egokitu zitzaion; bigarrena, zerria, 1.412ari; hirugarren saria, bi bildots 7.241 zenbakiari eta azken saria, magra 3.164 txartelaren jabeari.

Baina oraino, hau idazterako orduan, ez da behi eta aretzearen jaberik agertu. Beraz, 3.288 zenbakiaren jabeak otsailaren 6a baino lehen jakinarazi beharko du.

Bigarren saria, zerri ederra, Iruritako Ana Lakostarendako izan da; hirugarren sariko bildotsak, Elbete-Elizondoko Andres Burgetek eraman ditu eta laugarren saria, urdaiazpikoa, Arizkungo Mari Cruz Sobrinori egokitu zaio.





ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL
Oraino jaberik ez duten behi eta aretzea Elizondoko plazan. Beheitian, sariak atera zituzten neska-mutiikoak.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Murrizketen kontrako elkarretaratzeekin segitzen dute eskoletan

Urte berriarekin batera, murrizketen kontrako elkarretaratzeei ekin diote berriz ere Baztan eta Urdazubi-Zugarramurdiko herrietako eskolek. Urtarrilaren 22an, Amaiurren egin zuten argazkian ageri den kontzentrazioa. Hurrengo urtarrilaren 31n, arratsaldeko 4:45ean eginen da Arizkungo plazan.



# BAZTAN

POLITIKA ➜ BILDU ETA EZKERRARI KRITIKATUZ

## Geroa Baik kezka adierazi du «udalaren kudeaketa ekonomiko murritzaren» aurrean

Gobernu taldea 2013ko udal aurrekontua dagokion epean onartzeko ez dela gai izan salatu du

**TTIPI-TTAPA**

Baztango Geroa Bairen ustez, «kezkatzekoa da Bildu-Baztango Ezkerra gobernu taldea ez dela gai izan 2013ko aurrekontua dagokion epean onartzeko. Larria da, batetik, urtea hasi aurretik onartu egin behar baita urte horretarako aurrekontua, legeak eta zentzuak berak adierazi bezala. Baina, bestetik, eskandalagarria da gainontzekoei gardentasun falta leporatzen dieten horiek, egun arte, sikiera egin beharrekoaren ildo nagusi eta orokorrik eman ez izana. Udal buletinean, denori bezala, guri ere ezarriko zaizkigun murrizketen berri ematen dute, baina, jakin nahiko genuke urte honetan zehar zertan gastatu edota inbertituko dituzten baztandarron baliabideak».

Honekin batera, Baztango Udalaren ekimen ekonomiko falta salatu du Geroa Baik, izan ere, «egun bizi dugun garai kritiko honetan, bailarako sektore eta eragile ekonomikoei laguntzeko ez da batere neurririk edota ekimenik proposatzen ari. Zorionez, bailaran badira sektore ezberdinen promozio ekonomikorako lanean ari diren elkarteak eta, horien lana goraipatzearekin batera, Udalari horiek laguntzeko eta besteko» eskatu diote.

Bilduk eta Baztango Ezkerrak egiten duten gauza bakarra gastua kontrolatu eta beraiek heldu zireneko martxan ziren zerbitzuak mantentzea dela uste du Geroa Baik. «Ez dute beste inolako ekimenik proposatu, ez bederen Baztango ekonomia bizkortze aldera». Egun bizi dugun krisi egoeraren aurrean honelako gabeziak onartezinak direla uste du Geroa Baik. «Aktibitate ekonomikoa bizkortuz gero, bailarak baliabide ekonomikoak lortuko lituzke; aldiz, udal honek nahiago du hemengo familiak presionatu, espediente berresle zigortzaileak banatuz han-hemen, une larri eta gordin honetan», diote Baztango Geroa Baiko kideek.



UTZITAKO ARGAZKIA

### 'Hiru ilargi laurden' liburua aurkeztu du Ernesto Prat-ek

Ernesto Prat Urzainki *Little*k, bere lehen eleberria aurkeztu zuen urtarrilaren 11n Elizondoko gaztetxean. Aurkezpenean azaldu zuenez «azkeneko urteetan Espainiako estatuak euskal militante iraultzaileen aurka abiaturiko salbuespen eta jazarpen egoera orokorraren emaitza da». Liburua salgai dago leku hauetan: Erratzu (Zubi Punta ostatuan eta Altxuko dendan); Arizkun (Dolatxean) eta Elizondon (Fantxike, Axular, Kiliki eta Intza ostatuan).

POLITIKA ➜ BILDU ETA BAZTANGO EZKERRAREN ERANTZUNA

## Geroa Baik «alarma faltsua» sortu nahi duela dio Gobernu taldeak

**TTIPI-TTAPA**

Geroa Baik argitaratutako oharrean sortu nahi duen «alarma faltsuaren aitzinean», baztandarren lasaitasunerako 2013ko udal aurrekontuak egite prozesuan daudela jakinarazi du Gobernu taldeak, eta Geroa Baik erraten duenaren aurka «toki gehienetan urte hasieran onartzen direla aurrekontuak, eskualdeko udaletxe gehienetan horrela gertatuko da».

Gobernu Taldearen oharrak dioenez, «Baztango Geroa Bai taldeak ongi aski dakien moduan, azken urteetan Na-Bai gobernuan zela adibidez Baztango udal aurrekontuak garai desberdinetan onartu ziren: 2008an hasierako onespena ekainean eman zitzaien, 2009an, otsailean; 2010ean abenduan eta 2011n urtarrilean».

Udalak aurrekontuen lanketa aspaldi hasi du baina udal-kontulariek aurten duten oposizio deialdiak tramitazioa mantsotu du eta kontuan hartu behar da «Nafarroako Gobernuaren aurrekontuekin dagoen ziurgabetasunak gure aurrekontuak ere baldintzatzen dituela». Hala ere nahiz eta mantsotu zerbitzua guztiz bermaturik dago eta aurrekontuak onartu eginen direla diote udaletik. Iazkoek bezala, «krisi egoeran baztandarren eskubide sozialak bermatzea izanen dute lehentasun, kohesio soziala bultzatzea eta bazterketa sozialari kontra egitea». Horrekin bat udalaren ardurapeko azpiegituretan inbertsioak eginen direla jakinarazi dute, nahiz eta «aitzineko udalak utzitako zorraren zamak guztiz baldintzatzen du inbertsioak egiteko aukera». Geroa Baik ez duela proposamen bat bera egin eta irekita dauden erabaki guneetan parte hartzera gonbidatu dute.









GIZARTEA ➜ ELIZONDOKO LANBIDE ESKOLAN

# Egungo egoeraz solasaldia eskaini Zuen Sixto Jimenez ekonomistak

Krisitik ateratzeko gastu publikoaren murrizketa kritikatu zuen

**TTIPI-TTAPA**

Elizondoko Lanbide Eskolak egungo egoera ekonomikoa azaltzeko Sixto Jimenez Muniain ekonomista eta enpresa gizon ospetsua gonbidatu zuen. Sixtok hogeita hamar urte baino gehiagoko esperientzia du enpresa munduan. Berak zuzendutako enpresak, Viscofan multinazionala adibidez, munduan bere sektoreko lider izan dira. Egun, Tutti-pastako presidentea da.

Bi orduz, Zangozako ekonomistak Lanbide Eskolako ikasleekin egungo krisiaren jatorriaz eta izan ditzakeen ondorioez solas egin zuen. Egindako hausnarketan Gobernuak krisialditik ateratzeko egiten ari den gastu publikoaren murrizketa kritikatu zuen eta aldi berean, politikariek hartutako neurrien inguruan ematen dituzten argudioak kolokan jarri zituen. Bide batez ikasleak animatu zituen espiritu kritikoa izatera eta bere zaletasunekin bat egiten duen zerbaitetan jardutera.

Norbait interesatuta baldin badago munduan barna konferentziak ematen dituen enpresa gizon honek ekonomiaren inguruan ematen dituen argudioak jakiteko *www.ekoberri.com* blog ekonomiko interesgarrian irakur ditzake. Lanbide Eskolatik blog hau gomendatu dute, egungo egoera sozio-ekonomikoa hobeki ulertzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Lekaroz eta Leitzako Institutuetatik Elizondokora

Leitzako Amazabal eta Lekarozko Institutuko ikasle eta irakasleek Elizondoko Institutua bisitatu zuten urtarrilaren 15ean, «instalakuntzak ikusteko eta teknologiarekin zer ikusia duten esperimentu batzuk bertatik bertara bizitzeko»

## Foruzaingoaren kanpaina

Elizondoko Foruzaingoko komisariak segurtasuneko prebentzio-kanpaina bat abiatu du, bere eraginpeko zonaldeko enpresa eta saltokietan, bi helburuekin: agenteek betetzen dituzten zerbitzuen berri ematea, eta haiekin batera prebentzioko lankidetza sustatzea, auzolanean.

Modu horretan, Foruzaingoak zonaldeko 600 enpresa eta saltoki baino gehiago bisitatu eta gida bat eman die beren arriskuak azter ditzaten eta, horren ondorioz, lapurretak eta kalteak ekiditeko. Halaber, segurtasun-eskuliburu bat eman diete, eta bertan gomendio batzuekin batera, Foruzaingoak eskaintzen dituen zerbitzuen zerrenda azaltzen da.

Prebentzioko patruilak ere egiten dituzte, gauean bereziki, zonalde horretako enpresa eta saltokietan. Iaz era horretako 4.000 zaintza inguru egin zituen.

BERE HERIOTZAREN 50. URTEURRENEAN

# Joxe Telletxea txistularia gogoratu dute Erratzun

**TTIPI-TTAPA**

Joan den mendean bere txistulari lanarengatik ezagun izan zen Joxe Telletxeari omenaldia eskaini zioten Baztandarrak eta Jo ala Jo elkarteek urtarrilaren 20an Erratzun.

Ziztulariak, fanfarrea eta txalaparta doinuak hedatu ziren goizean karrikaz karrika, Mutildantzak dantzatu plazan eta bazkaria egin zen Erratzuko Elkartean.

José Jerónimo Telletxea Sarratea, *Joxe Xixtu* Zigaurreko Indartetxipian sortu zen 1891ko urriaren 16an. 1917ko apirilaren 17an Berroetara ezkondu eta 1924an Erratzura gan zen bizitzera, Erratzuko *damuñe* (danbolina) ofiziala izendatu baitzuten. 15 urte eman zituen Erratzun eta handik Errenteriara joan zen bizitzera. 1942an Patrizia Arroabarrena lehen emaztea galdu eta hiru urte beranduago itzuli zen Baztanera, Arraiozera. Arraiozen Mª Guadalupe Arozenarekin esposatu zen. 1963ko ilbeltzaren 12an hil zen.

Musika ikaskuntzei dagokienez, Zigako Pablo Goldarazena apezarekin musika ikasten hasi zen ttikitan, gero Emiliano Apezetxea Erratzuko organista zenarekin. Zipriano Iribarren *Xamar* txistulariarengandik mutildantzaren doinu gehienak ziztuarekin jotzen ikasi zituen Joxek. Joxek, mutil gaztea zelarik, ikasi zuen *Eztai doinua* Joxe Angel Dorremotzengandik. Arestian aipatu den bezala, Erratzuko danbolin ofiziala izan zen 1924tik 1939 urte artio alta Erratzun herriko bestetan eta iñautetan txistua jotzen segitu zuen bertze hainbertze urtez. Berroetan eta Zigan ere maiz jotzen zuen herriko bestetan. Arraiozko danbolina izan zen 1945 urtetik 1963 artio eta lan aipagarria egin zuen mutildantzak erakutsiz. Bere mutildantza ikasleen artean Valentin Barragan dago, Baztango dantzak maiz erakusten aritu zena Lekarozen, Elizondon eta Oronoz-Mugairin batez ere.

Joxek klarinete "errekintoa" ere jotzen zuen plazetan, igande eta besta-eguneko arratsaldetan, ttunttunaren tenorean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Joxe Telletxea, «Joxe Xixtu».

# BAZTAN

**OSPAKIZUNAK ➜** OTSAILAREN LEHEN ASTEBURUAN

# Inauteri giroa herriz herri hedatuko da

**TTIPI-TTAPA**

Baztango herri eta auzo bakoitzak bere ospakizunak izaten ditu. Anizen, Berroetan eta Oronozen, errateko, egin dituzte inauteriak, Erratzun Gizakunde ere ospatu dute eta orai bertze ospakizunen txanda da. Otsailaren lehen aste hondar honetan zenbait herritan izanen dituzte inauteak.

**Azpilkuetan** otsailaren 1ean eta 2an izanen dituzte inauteriak. Urtero bezala, ortzilerian gosaldu ondotik, Zuaztoi, Urrasun eta Arbiltoa auzoetan etxez etxeko bisita eginen dute. Gauez, denak elkartean biltzen dira afaltzeko. Larunbatean, berriz, gosaldu ondotik Apaioa auzoa eta herriko etxeei bixita eginen diete eta akitzeko elkartean bilduko dira paella eder bat afaldu eta inauteak akitzeko.

**Zigan** otsailaren 1ean, ortzilerian orakundeak ospatuko dituzte, auzo eta herrian eskean ibili, bazkaria, jokoak eta txokolatada. Eta iñauteriak auzo eta baserrietan goizetik hasita. Otsailaren 2an, larunbatean, herriko ibilbidea eginen dute eta dantzaldia Angel Marirekin. Gero, ostatuzarrean afaria izanen dute. Izen emate lista sozidadian dago.

**Arraiozen** ere asteburu honetan izanen dira inauteriak. Otsailaren 1ean, ortzileri goizeko 9:30ean gazteak ostatuen elkartuko dire gosaltzeko. Gosaldu ondoan bordetako itzulie eginen dute Jaione akordeoilariek lagundute; bordetako itzulie akitu ondoan Batzartegien afalduko dute. Otsailaren 2an, larunbatean 10:00etan gazteak ostatuan elkartuko dira gosaltzeko. Gosaldu ondoan herriko etxeetan barna itzulie eginen dute Jaione akordeoilariak lagunduta. 21:30ean afariea izanen da Batzartegien nahi duten herritar guziendako. Afal-ondoan Jaione eta Irunek soinua joko dute. Besta-giroak goizalderaino iraunen du.

**Elbeten** ere, larunbat honetan eginen dituzte inauteriak. Goizean, ongi gosalduta indarrak hartu ondotik etxez etxe puxke biltzen ibiliko dira. Gauean herritar guziendako afaria izanen da Posadan, akordeoi doinuek lagunduta.














UTZITAKO ARGAZKIAK

Asteburu honetan inauteak izanen dituzte Zigan, Azpilkuetan eta Arraiozen.

**INAUTERIAK**

## Giro ederrean ibili dira Aniz eta Berroetako gazteak

**TTIPI-TTAPA**

Urtarrilaren 19an izan ziren Anizko inauteriak. Egun bakarreko besta ez aski nonbait, eta bezperan Mendiarte Kultur elkartean afaldu zuten gazteek. Goizeko ordu ttipiak artio iraun zuten, baina halere, biharamunean goizik berriz Elkartean ziren gosaltzeko prest. Eguerdia pasatua zela, etxez etxeko eskea hasi zuten Sonborrotik, trikitixa eta panderoaren laguntzarekin. Puxkak xaretoan bildu ondotik ilunabarrean berriz ere Mendiarterat itzuli ziren bildutako xingarra, xixtorra, arraultzeak... afaltzera. Aski gustura ibili ziren 16 aniztar eta berrotar Anizko inauterietan. Urtarrilaren 26an, aniztarrak izan ziren Berroetarat joan zirenak. Aspaldiko partez bezperan, Berroetako baserrietan barna ibil dira puxkak biltzen, eta larunbatean herrian etxez etxe.



UTZITAKO ARGAZKIA

Berroeta eta Anizko gazteak, Anizko inauterietan.

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58






OSPAKIZUNAK ➜ DATA OFIZIALETAN

# Mozorro bestak segida izanen du

TTIPI-TTAPA

Inauterietako data ofizialetan ere inauteriak izanen dira Baztanen. Elizondoko xehetasunak gehigarrian dituzue eta Iruritan eta Almandozen ere eginen dute etxez etxeko puxka biltzea.

**Amaiur**ren, otsailaren 5ean haurren inautea ospatu eta 8an eta 9an helduen iñautea eginen dute. Ortzilerian gazteek elkartean gosaldu ondotik eskolara bixita eginen dute mozorrotuta eta gero baserriz baserri ibiliko dira, berriz ere elkartean afaltzeko. Biharamonean, ongi gosaldu ondotik, herrian ibiliko dira eskean eta gauean afaldu eta dantzatu eginen dute elkartean.

**Lekaroz**en otsailaren 8 eta 9an izanen dituzte inauteriak. Ortzilerian herritik urrunago dauden etxeetan ibiliko dira eta gauean sagardotegian afalduko dute. Launbetian, berriz, herrian dauden etxeetan ibiliko dira puxka biltzen eta herriko ostatuan bazkaldu eta afalduko dute. Aurten, azken pare bat urteetan bezala, Arkaitz Mindegia izanen dute trikitilari eta Birjinia Mariezkurrena panderoarekin.

**Gartzain**en ere otsailaren 8 eta 9an ospatuko dituzte inauteriak. Herrian 4 auzo daudela kontuan hartuta, lehenbizikoan Etxarri eta Ariztegi auzoak egiten dituzte eta larunbatean, berriz, Gartzain herria eta Aizano. Ortzilerian, gazteak Herriko Ostatuan biltzen dira gosaltzeko eta egunari hasiera ona emateko. Ondotik, trikitixa edo akordeoi soinuak lagun, bordetara abiatuko dira. hauek bisitatu eta alaitu ondotik, Etxarriko etxeak bisitatuko dituzte, Ariztegira ailegatu arte. Larunbatean ere herriko ostatuen gosaldu eta herriko etxeak bisitatuko dituzte eta gero Aizanokoak. Egune akitzeko, herri afaria izanen da eta besta goizeko ordu ttikiak arte luzatuko da.

**Erratzu**n otsailaren 10, 11 eta 12an ospatuko dituzte inauteriak.




UTZITAKO ARGAZKIAK

Ortzegun Gizenetik asteartera bitarte, izanen da ongi pasatzeko modua herriotan.

Igandean etxez etxe puxka biltzen ibili ondotik afaria eginen dute gazteek. Astelehenean ere plan beretsua izanen dute eta hondar egunean damen desfilea eginen dute.

**Arizkun**en ere otsailaren 10etik 12ra eginen dituzte inauteriak, igandetik asteartera. Igande goizeko 09:00etan gosaria eginen dute, gero auzotara puxke biltzera gateko. Esketik bueltan berriz herrian puxke biltzea eginen dute. 18:00etan mozorroak karrikan barna ibiliko dira. 20:00etan Dantzaldia frontoian. 21:00etan afaria elkartean (txartelak Dolatxea ostatuan salgai). Ondoren dantzaldia elkartean bera. Astelehenean ere igandea bezala ibiliko dira eta astearte eguerdian Sagardantza dantzatuko da herriko karriketan barna. 14:00etan desfilea Hartza eta hartzainarekin, damekin, mozorroak, karrozak... Ondotik bazkaria izanen da elkartean (txartelak Dolatxea ostatuan salgai).









ttipi-ttapa | 583 zk.
2013.01.31

# URDAZUBI

**INAUTERIAK** ➜ OTSAILAREN 10ETIK 12RA

## Etxez etxeko eskea eginen dute gazteek hiru egunetan

Igandean Dantxarinean eta ondoko egunetan herrian eta bertze auzoetan

**TTIPI-TTAPA**

Urdazubiko inauteriak otsailaren 10etik 12ra ospatuko dira.

Otsailaren 10ean, igandean, goizeko 9:30ean Gauiñara elkartean gazteentzako gosaria izanen da lehenik, eta hortik, denak mozorroturik, Dantxarineako Bentetan barna ibiliko dira eskean Modesto musikariak alaiturik. Gauean, Karretero ostatuan pintxoak eta musika izanen dira denentzat. Herriko gazteek mozorroturik agertzerat animatzen dute jendea.

Otsailaren 11 eta 12an, herriko auzo guzietan barna ibiliko dira eskean etxez-etxe trikitixa eta panderetak alaiturik. Gauean, 21:30 aldera, pintxoak eta musika izanen dira Karreterorat hurbiltzen diren guzientzat.

Herriko gazteek eskerrak eman nahi dizkiete «etxeko ateak irekitzen diguten herritar guziei, arrunt harrera ona egiten baitigute gazteei!».



UTZITAKO ARGAZKIAK

Auzoetako eskean ibiliko dira aurten ere Urdazubiko gazteak, baina horretaz gain, mozorro bereziak ere plazaratuko dituzte.

Faustino ETXABE tailerrak
Autoen konponketa
INAUTERI ON BATZUK PASA!!
☎ 948 599 038 - ZUGARRAMURDI

Ongi pasa inauteriak!
SANTIAGO VILLARES S.L.
GARRAIOAK
Luzerna-pentsu eta forrajearen SALMENTA eta ESPORTAZIOA
~
Lastoa
~
Luzerna
Tel. 948 599 134 Mug. 609 415 777
Fax. 948 599 156
(URDAZUBI)
santivillares@terra.es

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131

MONTXO OSTATUA TABAKO-DENDA

Platera konbinatuak | Ogitartekoak | Pintxoak | Menuak enkarguz
Egunero irekia 09:00etatik 02:30era - Dantxarineatik 2 km.tara
ANZAN-BORDA - URDAZUBI | 948 599 039

Iñaki Alzuyet margoak
PINTURA
DEKORATIBOA ETA INDUSTRIALA
Tel.: 659 862 417
URDAZUBI

HERRIKO ETXEA ➜ URTARRILAREN 11N

# Agiantzak zabaldu dituzte auzapezak eta herriko kontseiluak

Zahar Etxe zaharrean zenbait osasun gela eta haurtzaindegi ttiki bat eraikitzeko lanak eginen dira

**Joana GUERENDIAIN**

Urtarrilaren 11n auzapezak eta herriko kontseiluak beren agiatzak zabaldu dituzte lur berri gelan zirenei (langile, elkarteko kide…) eta Saratar guziei. Aukera izan da hoientzat joan den urteko lanak aipatzeko eta aurtengoak aurkezteko. Bertzeak bertze aipatu dituzte zahar etxe zaharrean eginen dituzten obrak, proiektua baita mediku, kine, erizain eta dentista gelak eraikitzea baita ere mikro-haurzaindegi bat. Eraikuntza handian bizilekuak eta elizarendako gelak eraikiko dituzte baina permisa aurten galdetu beharra dute. Gero galtzaden berriz planttan ezartzea aipatu dute, hasiak dira janeko, Argaingo auzoan bertze 4 lota banatuko dituzte, eskoletan obrak eginen dituzte normetan atxikitzeko. Herria eta bere bizitza hunkitzen duten bertze gai ainitz aipatuak izan dira. Mintzaldia eta gero herriko etxeak aperitif bat eskaini du.



Artxiboko argazkia

Gazteak auzoz auzo eta baserriz baserri ibiliko dira inauterietan.

## Ihauteriak

Aurten Saran ihauteriak otsailaren 9 eta 10eko asteburuan ospatuko dira. Larunbatarekin gazteek, mozorroturik, Sarako auzoak animatuko dituzte kantu eta dantzekin. Auzoetan barna ibiliko dira traktore eta xareta animatu batean. Beren ibilaladia gauean bukatuko da trinketean, Herriko Etxeko edantegia hetsia baita Zazpiak Bat dantza elkarteak gaztetxea idekiko du gaua goxoan buka dezaten.

Igandean, goizeko 11:30ean gazteen eta haurren desfilea eginen da plazan, ondotik dantzak eta zanpantzarren auzia. 1etan 3 eskolek antolatutako bazkaria Lur Berri emana izanen da. Arratsalde bukaeran gazteak berriz abiatuko dira aldi hunetan ostatu eta etxe zonbaiten itzulia egiteko.

## Erretretadunei bazkaria

Otsailaren 16an herriko kontseiluak, urtero bezala, erretretadunei bazkaria eskainiko die Lur Berri gelan. Nahi baduzue joan, otsailaren 8a aitzin izena eman behar da herriko etxean.

## Pastiza salmenta igandean plazan

Otsailaren 3an, igande goizarekin; pastiza salmenta bat izanen da Sarako plazan. Salmenta goizeko 9etan hasiko da. Salmenta hori Zazpiak Bat dantza elkarteak antolatzen du, Irlandara eginen duten bidaia finantziatzeko.

## Kontzertua herriko etxeko edantegian

Dakizuen bezala Vero eta Maixanek utziko dute ostatua otsailaren hastapenean, 15 urtez atxiki eta gero. Horren karietara otsailaren 1ean, ostirala gauarekin, kontzertu bat antolatu dute. Talde gonbidatua BKBO saratar taldea izanen da, espresuki berriz muntatu dena golpea markatzeko.

## Kirol emaitzak

Gure kirolariek urtea berriz hasi dute. Esku baloiko neskek aski ongi hasi dute, urtarrilaren 12 an madiranen kontra irabazi dute 16-13 eta urtarrilaren 29 an Lucq de Bearn-en kontra berdinketa lortu dute 20-20. Errubilariak urtarrilaren 19 ean etxean aritu dira Lit de Mixeko taldearen kontra. Lehenak 10-7 irabazi du eta bigarrenak ere forfetez.






# SENPERE

GERTAERAK ➜ URDAZURI GAINEZKA

## Uholdeak saihesteko Luberriko baradera beharrezkoa dela frogatu da berriz ere



Zonbait garaje eta aparkalekutan sartu zen ura hilaren 15ean

Franck DOLOSOR

Euskal Herriko herri frango bezala Senpere ere ibaien mailari eta zeruari begira egon zen urtarril erditsuan euri anitz egin baitzuen jauts ahala. Egun kezkagarriena urtarrilaren 15a izan zen errekak eta Urdazuri ibaia doi bat atera baiziren zonbait tokitan. Urak zonbait aparkaleku estali zituen eta garaje batzuetan sartu zen bainan zorionez aldi huntan ez zuen kalterik sortu etxeetan.

Luberriako baraderak bere lana egin zuen Nafarroatik eta mendi guneetatik isurtzen den ura atxikiz zonbait orenez. Christine Bessonart auzapeza pozik zegoen kalterik ez baitzen izan eta Luberriako urtegiak bere lana egin baitzuen 400 000 metro kubiko ur atxikiz. Bere erranetan, urak 10 hektarako eremua estali zuen eta guzi hori ez da Senpereko karrikarat etorri bat batean. Luberriako urtegiak 10 milioi euroko gastua sortu zuen eta Iparraldean azken urteetan egin den obrarik haundiena da. Senpereko aintzirak ere ur anitz atxiki zuen. Neguan Ortzango errekaren zati bat husten dute herriko langileek bainan egun euritsu horietan metra batez goratu zen kolpez. Urguri auzoan eraikitzen ari den saihesbideren 30 metrako espaloia altxatu, ereman eta arrunt desegin zuten urek eta horiek izan ziren kalterik aipagarrienak.

### Zer litzateke Euskal Herria pilotarik gabe?

Pascal Haroçarene pilotari senpertarra aspaldian lanean ari da buru belarri gure herrian gehien maite duen kirolaren alde. Orain ardura berriak ditu Pilotaren Frantziako Federazioan abenduan egin ziren barne hauteskundeak irabazi baizituen bere zerrendak, Lilou Etcheverriak buru zuen taldeak hain xuxen. Lehia irabazi eta berahala lanean hasi da Haroçarene, bertzeak bertze egun hauetan jokatzen den Frantziako buruz burukako xapelketa prestatzeko. "Zalu zerbait muntatu behar izan dugu, ahal bezala" dio senpertarrak. Pilotari batzuk ez dira baitezpada arrunt akort egutegiarekin bainan federaziotik diote ez dutela bertzela egin ahal izan. Arduradun berriek diote ona litzatekela elkarlanean aritzea Pilota Liga eta Esku Pilota elkartearekin. "Nahi badugu pilota aintzinatu, ohoratu eta haunditu, denek elgarrekin aritu behar dugu" dio Pascal Haroçarenek.

### 5.800 herritar Senperen

Urte berriko agintzen karietarat, andere auzapezak jakinarazi du herritaren azken zenbaketaren arabera 5.800 biztanleen muga gainditu duela gure herriak.



ARGAZKIAK: KARINE ORELLANA

Urdazuri ibaia doi bat atera zen urtarrilaren 15ean zonbait kalte eginez.

2012an, 63 haur sortu ziren, 24 ezkontza ospatu ziren eta 36 herritar zendu ziren.







ttipi txartela
ttipi txartelarekin
beti irabazten da!
deskontuak + zozketak + aldizkaria musutruk
Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan
582. ALEKO IRABAZLEAK
* ONDDO TA PUNTO KAMISETA
Maite Blanco | BERA
* MARTIKO LOTEA
Joxe Manuel Irigoien | ETXALAR
* AQUARIUM 2 SARRERA
Mª Luisa Etxeberria | IGANTZI
* IBAIZABAL 2 LIBURU
Maite Erregerena | ITUREN
* GU TA GUTARRAK DVD + HAINBESTE
Mª Jose Eraso | IRURITA
* URTXINTXA ESKOLA
PUNPALAPLAN CD + DVD
Juana Mª Arburua | ETXALAR
zozketak
oninart
KAMISETA BAT
Oninart denda
www.oninart.com
urtxintxa eskola
IZURDEA PLISTI-PLASTA
Urtxintxa eskola
www.urtxintxa.org
deskontuak
ZALAIN MOTOR
BERA | %5 erreakarbioetan
edurne arropadenda
BERA
%5, 30€tik gorako gastuan
KATEA-BIKE
BERA | %5 konponketetan
Urdi Lesaka
MAIMUR
LEITZA
%10 opariatzeko artikuluetan
DONEZTEBE
%5 zakur eta katuen pentsuan
AQVARIVM
AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariumss.com
elkar
2 LIBURU
Elkar argitaletxeak
www.elkar.com
Lanku
Liburua eta CDa
Lanku
www.lanku.com
urtxintxa eskola
PUNPALAPLAN CD + DVD
Urtxintxa eskola
www.urtxintxa.org
ttipi-ttapa
Koskontako bidea 7, 31770 LESAKA
Tel. 948 635 458 Fax 948 635 457
info@ttipi.net www.ttipi.net

# URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

**OSPAKIZUNAK** ➜ URTARRILAREN 17AN

## Bi herrietako laborariak bildu dira San Anton egunean

27 lagun elkartu ziren Karretero jatetxean

**Margari eta Koro**

Gero eta laborari guttiago ditugu gure herri hauetan, bainan hala ere, lehengo usai xaharrak aitxikitzen segitzen dugu.

Hoietako bat San Anton eguna da. Betitik Urdazubin ospatu izan da egun hau, denbora batean San Antoneko kofradia bat baitzen herri huntan. Gaur egun ez dago halakorik, baina bi herrietako laborariak Urdazubin elkartzen dira.

Lehenbiziko meza izaten da, sainduari eskerrak emateko eta laguntza eskatzeko. Ondotik bazkari bat antolatzen da. Hunek ez du sainduarekin deus ikustekorik, bainan bazkaririk gabeko besta bat erdizka gelditzea bezala da. Aurten 27 lagun elkartu ziren Karretero jatetxean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Urdazubi eta Zugarramurdiko ikasleak gustura ibili ziren Aste Zurian.

### Ikasleak elurretan

Urtarrilaren 13tik 18rako astean eskolako 17 ikasle elurretan izan ditugu. Orain arte ez ziren sekulan ateraiak "aste xuria" deitzen hortan, bainan errepikatzeko gogoakin itzuli ziren haurrak.

Kontutan hartu behar da juxtu alertan egondako egunetan tokatu zaiela: elurte haundiak, elektrizitate mozketak… eta egin beharreko ekintza batzuk egin gabe gelditu ziren. Hala ere izigarri esperientzia ona izan omen da. Haurrak kontent itzuli dira, eta irakasleek eskertu dute izan zen antolakuntza ona, eta arreta hurbila.

### Atxuria mendi taldearen ateraldiak

Atxuria mendi taldeak aurtengo ibilaldien egutegia prestatu du. Hauxe da: ilbeltzea San Antonerat; otsailean Xaretako itzulia; martxoan Iruña-Gares (Santiago bidea); apirilean Lesaka-Arantza; maiatzean Sunbila-Mendaur-Ituren; ekainean Elizondorat; irailean Donostia-Orio; urrian Erratzuko itzulia; azaroan Itxusiko peñak; eta abenduan Aiako harriak.

Ibilaldi guztiak (lehenbizkoa eta azkenekoa salbu) hilabeteko laugarren igandean eginen dire.



## EZKONTZAK

**Ez dago datu berririk.**

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*




## SORTZEAK

**Aiert Urrutia Etxenike**, Iruritakoa, urtarrilaren 10ean.
**Oihan Plez**, Sarakoa, urtarrilaren 2an.
**Nerea Sorrondo**, Sarakoa, urtarrilaren 9an.
**Elena Seminario**, Sarakoa, urtarrilaren 15ean.
**Araitz Otaño Albistur**, Goizuetakoa, urtarrilaren 17an.
**June Etxeberria Perurena**, Goizuetakoa, azaroaren 28an.
**Arhane Zubieta Moratinos**, Lesakakoa, abenduaren 26an.
**Jon Madariaga Apezetxea**, Lesakakoa, urtarrilaren 8an.
**Olaia Gajate Olaetxea**, Lesakakoa, urtarrilaren 9an.
**Markel Etxepare Aiestaran**, Lesakakoa, urtarrilaren 10ean.
**Jon Aranguren Irigoien**, Igantzikoa, urtarrilaren 14ean.
**Iraia Petrikorena Huizi**, Igantzikoa, urtarrilaren 16an.
**Nahia Iribarren Maia**, Doneztebekoa, urtarrilaren 9an.
**Amets Madariaga Apaolaza**, Arantzakoa, urtarrilaren 16an.
**Enaitz Elizalde Mariezkurrena**, Zubietakoa, urtarrilaren 18an.




## HERIOTZAK

**Jose Luis Igoa Mariñelarena**, Berakoa, urtarrilaren 9an, 64 urte.
**Juan Bautista Elizalde Elizalde**, Saldiaskoa, urtarrilaren 13an, 81 urte.
**Milagros Iribarren Danboriena**, Berakoa, urtarrilaren 14an, 78 urte.
**Ashon Etxabide Igantzi**, Lesakakoa, urtarrilaren 15ean, 57 urte.
**Florencio Larrea Larraz**, Leitzakoa, urtarrilaren 17an, 93 urte.
**Francisco Javier Goñi Arraztio**, Donamariakoa, urtarrilaren 17an, 61 urte.
**Juan Telletxea Telletxea**, Lesakakoa, urtarrilaren 18an, 77 urte.
**Jose Juan Ignacio Goia Goia *Gofi***, Lesakakoa, urtarrilaren 18an, 57 urte.
**Antonio Arretxea Bergara**, Sunbillakoa, urtarrilaren 20an, 74 urte.
**Paul Elizalde**, Sarakoa, urtarrilaren 4ean, 86 urte.
**Jean Baptiste Etcheverrigaray**, Sarakoa, urtarrilaren 5ean, 84 urte.
**Damiantxu Mitxelena Larretxea**, Iruñean, urtarrilaren 19an, 86 urte.







**Lorenzo**
**APEZETXEA GOIZUETA**
**Goizuetan, 2012ko abenduaren 21ean**

*Umorez eta alaitsu*
*egoten ginen elkarrekin*
*eta oroitzapen ahazterin horiek*
*beti geldituko dira gurekin.*

**UMORE ONA ELKARTEA**



MOTORRA ➜ JUNIOR MAILAN ETA 1 KLASEAN ARI DIRA CITROEN SAXO GR.N AUTOAREKIN

# Euskadiko Rallysprint txapelketa irabazi dute Oteiza eta Ariztegik

## Zazpi probetatik hiru irabazi dituzte

**TTIPI-TTAPA**

Gorka Oteiza, Oronoz Mugairiko 25 urteko auto gidariak eta Hodei Ariztegi, duela 23 urte Donezteben sortu eta Beran bizi den kopilotoak irabazi dute 2012ko Euskadiko RallySprint txapelketa, 1 klasean eta junior mailan.

2011n Citroen Saxo GR.N autoa erosi zuten lasterketetan parte hartzeko eta aipatu digutenez, «bi karrera egin genituen, kotxea probatzeko». 2012 denboraldian, berriz, bikain ibili dira. Euskadiko txapelketak zazpi proba zituen eta hasiera ez zen nahi bezalakoa izan.








UTZITAKO ARGAZKIAK

Hodei Ariztegi eta Gorka Oteiza, Citroen Saxo autoan sartzen eta karreretako irudiak.

«Gabirian autoa ez genuen prest eta ez genuen parte hartu eta Hondarribian, istripu txiki bat izan genuen arren, laugarren bukatu genuen». Hortik aitzinera emaitzak hobetu zituzten eta Ñañarrin bigarren izan ondotik, lehen postua eskuratu zuten Azpeitian, San Migelen eta Aramaion. Eibarko azken proban puntu bat aski zuten txapelketa irabazteko eta hirugarren izan ziren, «hagitz eguraldi kaxkarra zegoen eta arriskatu gabe ibili ginen» aipatu digute Oteizak eta Ariztegik.

Motorra kirol garestia da, baina «suertez, sponsor batzuk baditugu, Doneztebeko Big Mat Menditxuri, Arraiozko Nafarmendi, Oronoz Mugairiko Carrocerias Mugaire, Elizondoko Lur aretoa, Sunbillako Iruri Motor eta Magnesitas Navarra eta eskerrak eman nahi dizkiegu». Izan ere, babesleen laguntzari esker aurten ere zirkuituan segitzekoa asmoa dute. Modu berean, eskerrak eman nahi dizkiete laguntzera eta animatzera joaten zaien familiari eta lagun guztiei, «beraien laguntza gabe ezingo genuke ezer egin», diote.

IGANTZIKO BILTOKIK, GURE TXOKOAK ETA BETI GAZTEK

# Txirrindularitza eskola sortu nahi dute Bortzirietan

## Astean behin elkartzeko asmoa dute

**TTIPI-TTAPA**

Lesakako Beti Gazte, Igantziko Biltoki eta Berako GureTxokoa elkarteen elkarlanarekin, 2013. urterako Bortzirietako txirrindularitza eskola osatzeko proiektua martxan paratu dute.

Horretarako, Bortzirietan talde bakarra osatzea erabaki da, haur kopuru haundiagoa lortu ahal izateko eta herri desberdinetako haurren arteko adiskidetasuna lantzeko. Hasiera batean, adin tarte desberdinetako taldeak osatuz, astean behin elkartzeko ideia dute. Gynkanen eta ariketen bidez bizikletarekin daukaten trebezia landuko litzateke, baita bide segurtasunerako arau orokorrak ikasi ere.

Helburu orokorra txirrindularitza lasterketetan parte hartzea da (bakoitza bere adin mailean), haurrek aukera hori izatea behink behin, baina hau ez da derrigorrezkoa izanen.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

2006an Gure Txokoak zenbait ikastaro eman zituen, Bru eta Vila txirrindularien laguntzaz.

**ATLETISMOA** ➜ MENDI EGUNAREN BAITAN

# 94 korrikalari bildu zituen Berako Santa Barbarako seigarren Igoerak

## Jabier Zubieta, Loro Pikabea eta Xabier Saralegi gogoratuz egin zen urtarrilaren 12an

**TTIPI-TTAPA**

Berako Manttale taldeak, Agerra Mendi taldeak eta Gure Txokoa elkarteak antolatutako Mendi eguna ospatu zen urtarrilaren 12an. Seigarren urtez segidan, Santa Barbarara Igoera ere egin zen, 2007an Taillon mendian hil ziren Jabier Zubieta, Loro Pikabea eta Xabier Saralegi gogoratuz. 94 korrikalarik parte hartu zuten.

Goizean eskalada tailerra ere egin zen Xanti Susperregiren eskutik eta proba bertatik bertara ikusi nahi zutenek, Santa Barbarara oinez joateko aukera ere izan zuten.

Azkeneko edizioetan bezalaxe, 12 urte bitarteko haurrentzako lasterketak ere egin ziren kiroldegi inguruan, binakako kronoigoera baino lehen. Tartean aritu ziren Manttale atletismo eskolako ttikienak. Gero, handixeagoak ere atera ziren proba nagusian. Erran bezala, 94 korrikalari igo ziren Santa Barbarara: ama-semeak, bikoteak, lagunak, anaiak… modu guzietan osatu ziren bikoak. Bortzirietatik ez ezik, Legasatik Iruñetik, Irunetik, Saratik, Betelutik, Izabatik… etorri ziren kirolariak. Tartean, Berako Mendi Maratoi Erdia azken urteetan irabazi duen Didier Zago ere atera zen, Bautista Teletxearekin batera.

Omenaldi eguna bukatzeko, Mikel Ajuriaren *Viajar Escalando* dokumentala ikusgai izan zen Beralandetan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Manttale ttikiko ikasleeak eta lasterketan atera ziren bikoteetako batzuk.

**PILOTA** ➜ DONOSTIAKO CARMELO BALDA PILOTALEKUAN

# Munduko binakako pala txapelketan ari da Ibargarai

## Urkijorekin bikote eginez

**TTIPI-TTAPA**

Donostiako Carmelo Balda pilotalekuan jokatzen ari da profesionalen arteko Munduko binakako pala txapelketa. Bortz bikote ari dira eta Xabi Ibargarai erratzuarra da eskualdeko ordezkaria, Urkijorekin bikote eginez. Horiekin batera, gaur egungo txapeldunak diren Gaubeka eta Aierbe, Fusto eta Larrinaga, Altadill eta Lujan eta Garcia eta Imanol ariko dira txapelaren bila. Hasieran denak denen kontra ari dira ligaxkan. Liga hori irabazten duen bikotea zuzenean sartuko da martxoaren 2ko finalean eta bigarren eta hirugarren gelditzen direnek finalerdia jokatuko dute finalean sartzeko.

Urtarrilaren 21ean jokatutako lehen partidetan, Urkijo eta Ibargarak 1-3 galduzuten, Altadill eta Lujanen kontra eta bigarrenean, Fusto eta Larrinagak 3-0 irabazi zieten Garcia eta Imanol-i.

Bigarren jardunaldia urtarrilaren 26an jokatzekoa zen. Garcia eta Imanol, Altadill eta Lujanen kontra aritzekoak ziren eta Urkijo eta Ibargarai, Gaubeka eta Ayerberen kontra.

Hirugarren jardunaldia otsailaren 2an jokatuko da, laugarrena otsailaren 9an eta bosgarren jardunaldia otsailaren 16an jokatuko da.




ARTXIBOKO ARGAZKIA

Xabi Ibargarai erratzuarra, Urkijorekin ari da txapelketan.

ttipi-ttapa | 583 zk.
2013.01.31

# urtarrilak 31-otsailak 14

Informazioa bidaltzeko: **info@ttipi.net** edo **948 63 54 58**

## Kontzertuak



BERA | 2013.02.02

**Petti ta Etxeko Uzta eta On taldeak ariko dira Gaztetxean**

Petti ta Etxeko uzta eta On taldeak zuzenean ariko dira Kaxerna Gaztetxean, 21:00etatik aitzinera. Sarrera 5 euro ordaindu beharko da.

## Inauteriak



ESKUALDEA | 2012.02

**Mozorro bestak hartuko ditu otsaileko lehen bi asteburuak**

Joare soinuak itzali orduko, data ofizialetan eta aitzineko asteburuan ere puxka biltzeak eta inauterietako bertze pertsonajeak aterako dira herriz herri.

## Ospakizunak



ESKUALDEA | 2013.02.04

**Santa Ageda bezpera kantari ospatuko dute han eta hemen**

Karrikaz karrika kantatzeko ohiturari eutsiko diote Elizondon, Baztandarren Biltzarraren 50. urteurrenren ospakizunen barnean eta Goizuetan.

## Kontzertuak

BERA

**Petti ta Etxeko uzta eta On taldeak Gaztetxean**

**Otsailaren 2an** Petti ta etxeko uzta eta On taldeak zuzenean ariko dira Kaxerna Gaztetxean, 21:00etan. Sarrera: 5 euro.

## Antzerkiak

IRURITA

**Balitzen Hioa Begiradak**

**Otsailaren 3an** *Balitzen Hioa* emanaldia eskainiko du Begiradak taldeak, 19:00etan Damaso Zabalza Bilgunean.

## Lehiaketak

SUNBILLA

**Inauterietako argazki lehiaketa**

**Otsailaren 15a** bitarte aurkezten ahal dira Herriko Etxean inauterietako argazki lehiaketarako lanak. Sunbildarrei zuzendua.

## Solasaldiak

ELGORRIAGA

**Liztor asiatikoaz**

**Otsailaren 2an** liztor asiatikoari buruzko solasaldia izanen da Herriko Etxearen ganbaran, 16:30ean.

## Bertsoak

ITUREN

**Nafarroako txapelketa**

**Otsailaren 10ean** azken-laurdenetako laugarren saioa eginen da Iturengo Herriko Etxeko ganbaran 17:30ean. Eneko Lazkoz, Aimar Karrika, Iñaki Aleman, Egoitz Gorosterrazu, Alazne Untxalo eta Ioar Tainta.

## Tailerrak

ELIZONDO

**Inauterietako kapeluak eta mozorroak**

**Otsailaren 2an** kapeluak eta mozorroak egiteko haurrentzako inauterietako tailerra eginen da Arizkunenean, Birbira Kolektiboaren eskutik, 11:00etatik 13:30era.

## Ospakizunak

ELIZONDO

**Santa Ageda bezpera**

**Otsailaren 4an** Santa Agedako eskea antolatu du Baztandarren Biltzarra Elkarteak, 50. urteurrenaren ospakizunen barnean.

GOIZUETA

**Santa Ageda bezpera**

**Otsailaren 4an** Santa Agedako kantuak eskainiko dituzte, 18:30ean eskolatik abiatuta.

OIZ

**Malerreka kantuz**

**Otsailaren 2an** Malerrekako Euskara Batzordeak antolatutako kantu ekimenaren saio berri bat, 12:00etan Oizko plazatik abiatuta.

EZPELETA

**Ipar Euskal Herriko Gazte Eguna**

**Otsailaren 2an** ospatuko da Gazte orain dun/k tenorea izenburupean. Arratseko kontzertuan Zezenaren Taldea, Luz de Putas eta Sutagar taldeak ariko dira. Xehetasunak 16. orrian.

## Inauteriak

ARANTZA

**Mozorro besta asteburuan**

**Urtarrilaren 31tik otsailaren 2ra.** Xehetasunak 582. alean.

BEINTZA-LABAIEN

**Gazteak etxez etxe**

**Otsailaren 1 eta 2an.** Xehetasunak 20. orrian.

NARBARTE

**Haurren Egunarekin hasiko dira inauteak**

**Otsailaren 7tik 10era.** Xehetasunak 22. orrian.

DONEZTEBE

**Gazteen eskea eta karrozak**

**Otsailaren 7tik 9ra.** Xehetasunak 25. orrian.

ELIZONDO

**Mozorro ikusgarriak**

**Otsailaren 7tik 9ra.** Xehetasunak 28. orrian.

BERA

**Kaldereroak eta Inude eta Artzaiak**

**Otsailaren 2, 6, 7, 10 eta 11n.** Xehetasunak 30. orrian.

### PROPOSAMENA

NAFARROA

**Bertsolari txapelketa abiatuko da**

Asteburu honetan abiatuko da Nafarroako bertsolari txapelketa. Otsailaren 2an Lizarran eta otsailaren 3an Aldatzen izanen dira final laurdenetako lehen bi saioak. Hurrengo asteburuan, Larraintzarren eta Iturenen eginen dituzte saioak. Finalaurrekoetako bat Elizondon eginen da martxoaren 9an eta finala Iruñeko Anaitasunan, martxoaren 23an.



LESAKA
**Zakozarrak**
**Otsailaren 7, 10 eta 11n.** Xehetasunak 32. orrian.

ETXALAR
**Karrozak asteartean**
**Otsailaren 10etik 12ra.** Xehetasunak 34. orrian.

GOIZUETA
**Zahagi dantza**
**Otsailaren 10etik 12ra.** Xehetasunak 35. orrian.

ARANO
**Zahagi dantza**
**Otsailaren 2an.** Xehetasunak 37. orrian.

ARESO
**Otorduz otordu**
**Otsailaren 1etik 3ra.** Xehetasunak 39. orrian.

BAZTAN
**Herriz herri puxkak biltzen**
**Otsailaren lehen eta bigarren asteburuetan** Baztango herri gehienetan inauteriak izanen dituzte. Xehetasunak 44-45 orrian.

URDAZUBI
**Gazteak puxka biltzen**
**Otsailaren 10 eta 11n.** Xehetasunak 46. orrian.

SARA
**Gazteak mozorroturik**
**Otsailaren 9 eta 10ean.** Xehetasunak 47. orrian.

## Mendi ateraldiak

BAZTAN
**Baztango Mendigoizaleak**
**Otsailaren 3an** Alkotzera ateraldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek.

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

### Liburua




Hiru ilargi laurden
ERNESTO PRAT URZAINKI
Metaziri, 2013

Eleberri hau estatuaren jazarpenari ebatsitako minutu bakoitzarekin egin da, sasiko egun unagarrietan, premiaz, ihesaldi itoan ilargiari begira. Ordenagailu anonimoetan, kaparra ibiltarietan, mugako bideak gurutzatuz edozein narraziok ohikoa duen hasieratik amaierarako bidean; eta, horrela gauetik egunerako segidan argitu da irakurlearengana. «Idatziak arras egitura berezia du. Ez da nobela bat. Ez da saiakera bat. Saiakera nobelatu bat edo nobela didaktikoa. Istorio nagusi baten barnean agertzen diren bertze istorioak, gertaerak. Errealitate bat bertze baten barnean. Kolore anitzetako idatzia». Horrela dio Ernesto Prat Urzainki *LiTTLE* egileak. Metazirik argitara eman du, Baztandarren Biltzarra eta Erratzuko Kultur Elkartearen laguntzarekin.

### Musika




Fruitua
ESTANKONA
Baga-biga musika ideiak, 2012

Borja Estankona kantaria Arratiakoa da. Bizkaitarra 1979an jaio zen eta oso lotuta egon da kultura eta musikaren arlora urteetan. Estankona abeslariak, Arratia bertako bertze bi lagunekin, Arean taldea sortu zuen 2004an eta, bi urteren buruan, bi disko argitaratu zituen. Arean taldeari bukaera eman zioten eta bere bakarkako bideak itxura hartuko du, Estankona egitasmoa deritzona. Estankona kantariak *Fruitua* diskoa 2012ko uda garaian grabatu du eta aitzineko diskoa egiten lagundu zioten musikari berberak izan ditu alboan: Itxaso Etxebeste baxulariak, Jimmy Arrabit bateriajotzaileak eta Estankonak hiruko bikaina osatu dute, eta euren arteko elkar ulertzea erosoa da, eta, horrek, bere eragina du Estankonak egiten duen musikan. Diskoko abestiek erritmo eta musika estilo desberdinak jorratzen dituzte (vals, ska, country, reggae, rocka…), baina kontraste horrek ez du erran nahi linealtasun baten faltan dagoenik.

### Internet



Euskal musika karaoke formatuan
TXANTXANGORRIA.EU

Gabi de la Maza Euskal Girotze Barnetegi bateko irakaslea da. Duela lau urte bere lanerako prestatu zituen karaoke batzuk eta ikusita zer arrakasta izan zuten, Youtuben kanala sortu zuen. Gaur egun, lehengo eta oraingo 700 kanta baina gehiago ditu eginak, euskaraz kantatzeko helburuarekin eta webgune honetan zintzilikatu ditu. Benito Lertxundi, Berri Txarrak, Ken 7, Esne Beltza, Fermin Muguruza, Oskorri, Gatibu, Gozategi, Mikel Laboa, Gose eta beste hainbat eta hainbat euskal musikariren kantak aurki ditzakezu sarean doan, karaokeaz gozatzeko. Bloga, Karaokeen zerrenda, Bideoak eta Abesti txostena (kitarra akordeekin ikasteko) atalez gainera, Karaoke bat nola ekoiztu azaltzen duen saila ere badu. Ba al dakizu zein den bideorik ikusiena, alde handiarekin: Txirri, Mirri eta Txiribitonen *Pintto Pintto*, kasik milioi bat ikustaldirekin.

## Nire aukera



**Harritxu Arrijuria**
Oinetako konpontzailea Elizondon

### «Motxila hartu eta furgonetan harat-honat ibiltzea gustatzen zait»

Oinetakoak konpontzeko negozio berriak ez dio asti libre handirik uzten Harritxuri, baina posible duenean, «mendian, bizikletan ibiltzea eta argazkilaritzarekin zerkikusia duten gauzetan» aritzea gustatzen zaio. Kanporat ateratzeko denbora gehixeago izaten duenean berriz, «motxillero rolloa» aunitz gustatzen zaio, «furgonetan halako Tour moduko bat egin, helmuga jakinik gabe… Gustoko toki bat topatuz gero, igual aste osoa ematen duzu hor». Azkenekoa Lisboarat egin zuen, «sei lagun furgoneta handi batean, Extremadurako herri batean hiru egun egin genituen, gero Lisboarat eta bueltan Salamankan». Bere ametsa Australia ezagutzea da, «beharbada ez dut inoiz beteko, baina animaliak aunitz gustatzen zaizkidanez, Costa Ricara ere joan nahi nuke, posibleago ikusten dut». Ez da hondartza edo eguzki zalea, «tokiko kulturak ezagutzea gustatzen zait». Zinezale handia bada ere, «orai aparkatu behar izan dut».

## ETXEBIZITZAK
### salgai

**ORONOZ-MUGAIRI.** Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milio pezeta/ 100.000 euro. ☎948 585036.

ANZABAL INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan**
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

**URDAZUBI**
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.
- Herri erdigunean ostatua errentan ematen da, terraza barne. Egoera oso onean dago.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

**DONEZTEBE.** Zazpigurutze karrikan pisu berria salgai. ☎646 762383.

**SARRIGUREN** (Iruñea). Pisua salgai oso prezio onean, 150.000 euro. 90m², berogailua, 3 logela, 2 bainugela, sukalde, komuna, trasteleku, igogailu, terraza eta garajea. 3 urte, oso argitsua, toki lasaia eta bizitzen jartzeko prest. ☎ 679 928331.



# MERKATU TTIKIA

## 948 63 54 58

**info@ttipi.net** edo **www.ttipi.net**

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **3008 0080 53 0703304626** kontuan

TTIPI-TTAPAk ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

**LESAKA.** Albistur karrikan adosatua salgai. 140m² bi pisutan banatuak. 115 m²ko garagea eta txokoa. 50 m²ko terraza eta 60 m²ko jardinarekin. Prezio oso onean. 4 logela, bi komun, sukaldea eta egongela handia ditu. ☎ 692 748664.

**LESAKA.** 66 m²ko pisua salgai herri erdian. 2 trasteleku, garajea eta igogailuarekin. Berri berria. Prezio negoziagarria. ☎657 708866.

**DONEZTEBE.** Bi logelako pisua salgai. Trasteleku handiarekin. Prezioa: 105.000 eurotan. ☎630 160353.

**BERA.** Pisua salgai. Egongela, 3 logela, sukaldea, bainugela osoa, komuna, trastelekua, igogailua, berogailua eta balkoiarekin. ☎681 017423.

**ERATSUN.** Hiru borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

**BERA.** Pisua salgai Berako herriko plazatik hurbil. 3 logela, 2 bainugela, balkoia, terraza eta trastelekuarekin. ☎653 018955.

## ETXEBIZITZAK
### errentan emateko

**LEGASA.** Pisua errentan emateko edo salgai. Berritua, eguzkitsua, 3 logela, dena mobleztatua. Oso interesgarria, deitu eta etorri ikustera.☎677 089046.

**DONEZTEBE.** Zazpigurutze karrikan 110 m²ko pisua errentan ematen da. Sukaldea eta egongela mobleztatuta ditu. 3 logela, 1 mobleztatuta, 2 bainugela, berogailua eta igogailuarekin. ☎615 756282.

**SUNBILLA.** Pisua errentan edo salgai. 2 logela, sukaldea, eta egongela tximiniarekin. Dena hornitua, kalefakzioa, balkoia, terraza, igogailua, garajea eta trastelekua etxeko goiko solairuan. Kalitatezko eraikin berria eta inguru lasaia. Prezio onean. ☎628 473539.



**DONEZTEBE.** Pisua errentan emateko. Toki onean, prezio interesgarria. ☎626 178330.

**BERA.** Pisua errentan ematen da, Agerra auzoan; hiru logela, berogailua eta igogailuarekin. ☎659 963960.

**LESAKA.** Pisu bat errentan ematen da herrian bertan. Argitsua da eta 100m²ko azalera du. Sukalde eta egongela handiak, 4 logela, 2 komuna, 3 balkoi, mobleztatua eta berogailuarekin. Prezioa: 550 euro. ☎638 320774.

**BERA.** Pisua errentan ematen da. 3 logela, komuna, egongela, sukaldea eta garajea ditu. Etxebizitzak denera, 80 m²ko azalera du. Egoera onean eta mobleztatua. ☎606 810125.

**LESAKA.** Bittiri kalean 90 metro²ko pisua errentan ematen da. Sukalde haundia, egongela, 3 logela, komuna, trastelekua eta bi balkoi eder ditu. Bizitzeko prestatua dago.☎636 116021/ ☎ 639 855284.

**ELGORRIAGA.** Pisua errentan ematen da, mobleztatua eta berogailuarekin. 3 logela, sukaldea, komuna, egongela, balkoia eta trastelekuarekin. ☎ 629 734263.

**BERA.** Iturlandeta karrikan etxebizitza errentan ematen da. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta bainugela ditu. Berogailua eta igogailuarekin. ☎ 661 460267.

**LESAKA.** 110 m²ko pisua errentan emateko. Etxe guztiak kanpora ematen du eta bi balkoi eder ditu. 3 logela, egongela handia, sukaldea, komuna eta trasteleku handia. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎670 319380/☎607 769519.

**BERA.** Pisua errentan ematen da. 3 logela, sala, terraza eta bainugelarekin. Dena mobleztatua dago eta berogailuarekin. ☎948 630270.

# BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Urtarrilaren 11tik 18ra bitarteko prezioak)

## ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 49 € (+2,00)

**Zerri gizena**
1,303 € kiloa. (-0,007)

**Zerramak:**
0,820€ Kg/bizirik.

## BEHIKIA



**Aretze gizenak:**

| **Idixkoak:** | **€/kg. Kanal** |
|---|---|
| **Extra** | 4,13 |
| **1.koa** | 3,87 |
| **2.koa** | 3,71 |
| **Urruxak:** | **€/kg. Kanal** |
| **Extra** | 4,34 |
| **1.koa** | 4,06 |
| **2.koa** | 3,92 |

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**
urruxak 150,00
idixkoak 210,00

**Aretze nabarrak:**
urruxak 130,00
idixkoak 165,00

**Zaldikoak:** €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

**Bildotsak:** €/k
6-8 kilokoak: 7,60/7,70
8-10 kilokoak: 5,60/6,00

## ETXEBIZITZAK
### konpartitzeko

**BERA.** Pertsona bat bilatzen dut pisua konpartitzeko. ☎695 766626.

**BERA.** Hiru lagun bilatzen ditut pisua konpartitzeko.☎617 904941.

## ETXEBIZITZAK
### errentan hartzeko

**BERA.** Bikote bat Beran errentan hartzeko etxebizitza baten bila dabil. ☎669 216230.

**LESAKA**. Antoiu inguruan pisu edo etxe ttiki bat lur pixka batekin errentan hartuko nuke. Hilabetean 350-400 euro ordaintzeko prest. Interesatuek mesedez deitu 16:00etatik aitzinera. ☎636 777478.

## LURRAK/ORUBEAK
### salerosketak

**LEITZA.** Belatxo edo baserri bat eraikitzeko lur eremua beharko nuke. ☎606 933509.

## LURRAK/ORUBEAK
### errentan hartzeko

**BAZTAN.** Baztan inguruan azpiko behorra izateko belaia hartuko nuke errentan. ☎686 730516.

## LANA
### eskariak

**MALERREKA.** Asteburuetan lan egiteko emakumea eskaintzen da: bentetan, jatetxeetan... Frantsesa eta ingelesa badakizki. ☎679 210910.

**Erizain titulua duen gizonezkoa** eskaitzen da interno moduan lan egiteko. ☎655 629300.

**ELIZONDO.** Emakumezkoa eskaintzen da portalak garbitzeko, sukaldeko laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko. ☎658 454419.

## LANA
### eskaintzak

**LESAKA.** Atxaspi ostatuan zerbitzari euskalduna eta esperientziaduna behar dugu. ☎948 637536.

**URDAZUBI.** Irigoienea hotelean asteburuetan garbiketa lanak egiteko pertsona bat behar da. ☎948 599267.

## ANIMALIAK
### salgai

**Oilo** eta **oilar enanoak** salgai, 7 eurotan. ☎626 644420.

**Ahuntz enano** gazteak salgai. Urte bat eta lau urte bitartekoak. ☎680 289423.

Lau urteko **ahari mutur zuria** salgai. ☎948 630244.

## ANIMALIAK
### oparitzeko

**Bi txakurkume** hauek ematen dira oparitan. ☎626 335398.



## MOTORRAK
### salgai

**Gas Gas 300 Enduro** motorra salgai. 2000 urtekoa. Salneurria 1200 euro, negoziagarriak. ☎689 436643.

**Galloper Exceed** autoa salgai. 2000 urtekoa, 148.000 km ditu. Arras egoera onean. ☎ 660 965058.



**Nissan Almera Tino** 1.8 monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005 urtekoa. 65.000 km. Arras ongi zaindua. ☎628 572273.

**Citroen Xsara 1.6I** Gris metalizatua salgai. NA5266AY matrikula. 1200 eurotan. ☎626 644420

## ZERBITZUAK
### denetarik

**Diana Iniesta Psikologoa** kontsulta Erratzun, etxez etxe edo internet bidez.Interesatuek deitu ☎948453478ra edo idatzi dianainiesta@hotmail.com helbidera.

64 urteko gizonezko donostiar bat **euskaraz hitz egiten trebatzeko** baserri batetara joanen litzateke. Prezioaz hitz eginen dugu. ☎657 714272.




**BAZTAN, MALERREKA** eta **BORTZIRIAK**. Egur loteak egin, materialetarako arbolak bota eta ateratzen dira, prezio oso onean. ☎600 789034.



## DENETARIK
### salerosketak

**ORONOZ**. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



Arrano Elkarteak Lesakan egindako txondorretik ateratako **ikatza** salgai. Primerako kalitatea. Prezioa: 11 kiloko zakua 15 euro. ☎948 627597.

**Haritz amerikano** eta **gerezi landareak** salgai. Interesatuek, eguerdi edo arratsetan deitu. ☎948 450888.

**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehetua.☎659 867287/ ☎699 461394.

## DENETARIK
### galdu/aurkituak

Beran **zakur eme marroi** bat galdua aurkitu da. Norbaitek faltan bota baldin badu dei dezala: ☎660 917071.



## urtebetetzeak

Argazki soila: **4€**; bikoitza: **8€**

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea; 4) www.ttipi.net bitartez



Goizuetako **Ekhi Asiain Apezetxeak**, otsailaren 10ean 9 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partez. Aupa Txapeldun!!!



**Oihan Lujambio Sanchez** sunbildarrak otsailaren 5ean 7 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat familia osoaren partetik eta berexiki Edurne eta amattoren partez.



**Ekhi Ezkurra Sanz** sunbildarrak 5 urte beteko ditu otsailaren 5an, Zorionaaaak!!! Leitzako familiaren partez, eta berexiki Anartz eta lehengusuen partez, ongi pasa eguna eta ez ahaztu txokolatezko tarta!!!



Urrozko **Izaskun** eta **Mirenek** urtik beteko ttuzte. Zorionak zuen ahizpan partez, aber iñautetan biar den bezala ospatzen dugun. Muxu pedorras



Etxalarko **Gixone Telletxea Irisarrik** 5 urte beteko ditu otsailaren 7an. Zorionak eta muxu bat familia guztiaren partez.



Eratsungo **Naroa, Aratz** eta **Florenciak** urtarrilaren 18, 31 eta otsailaren 3an urteak betetzen dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat familia osoaren partetik.

# urtebetetzeak

Argazki soila: **4€**; bikoitza: **8€**
Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea; 4) www.ttipi.net bitartez



**Jonek** 9 urte bete ditu urtarrilaren 27an eta Naroa lehengusiñak lehenbiziko urtetxoa otsailaren 5ean. Aunitz urtez bieri, ongi oasa! Muxuak!



Leitzako **Ioritz** eta **Aiert Dorronsoro Iparragirre** berrituek 6 eta 3 urte bete dituzte urtarrilaren 25 eta 30ean. Zorionak eta muxu potolo bana aitatxo eta amatxoren partetik.



Iruñeko **Anne** eta **Naia Casado Sarobek** urteak bete dituzte urtarrilaren 12an. Zorionak sorgintxoak! Aitatxo, Amatxo eta Marenen partez.



Zorionak Narbarteko osaba **Ismael** eta bere iloba **Oskia** eta **Laieneri.** Urtarrilaren 22,17 eta 28an urteak bete dituztelako. Hiruen artean berendua noiz prestatuko duzuen zain gaude. Aunitz urtez Narbarte eta Gazteluko familiak.



Leitzako **Enaut Bidartek** urtea bete du urtarrilaren 17an. Zorionak potxolo! Eta muxu haundi bat etxekoen partez!



**Amaia Altzuguren Mitxelena** beratarrak urtarrilaren 19an 19 urte bete ditu. Zorionak eta aunitz urtez wapa! Primeran pasa eta arratxin besta on batekin ospatu! "Que suba suba la temperatura, que esta noche está buena para hacer travesuras…" badakizu zer egin arratxin! 19 muxu zure kuadrilaren partez!



Igantziko **Enaut, Josu** eta **Oierrek** urteak beteko dituzte**.** Aunitz urtez hirukote zuen 8, ..... eta 4. urtebetetze egunetan!!! Ongi pasa eta ez ahantzi etxean berenduaren esperuan gelditzen garela!!! hiruren artin plantatuko al tzue ganorazko zerbatte!!! Muxu haundi bana Ama eta Aratzen partez!!!



Ibardingo **Muskoa Elgorriagak** urtea beteko du otsailaren 1ean. Zorionak eta muxu handi bat Lesaka eta Ibardingo familiaren partetik.



Sunbillako **Iraide** eta **garainek** 4 urte bete dituzte. Zorionak eta mila muxu Jose Javier, Consuelo, Julen eta Ireneren partez. Aunitz urtez!



Goizuetako **Urkok,** Iturengo **Garazik** eta **Aritzek** eta Sunbillako **Oihan** lehengusuek urteak betetzen dituzte urtarrilaren 22an, 29an eta Otsailaren 5ean. Zorionak eta muxuak!



Goizuetako **Manuel** eta **Maritxok** 61 urte bete dituzte ezkondurik. Ea datorren urtean ere aurten bezain ongi ospatzen dugun. Zorionak eta muxuak seme-alaba, biloba eta birloben partetik.



Etxalarko **Iker Otxoteko Bengoetxeak** urtarrilaren 28an lau urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partez.



**Oihan Etxeberria Iparragirre** oiartzuar lesakarrak 7 urte bete ditu urtarrilaren 27an. Zorionak txapeldun, etxekoen partetik.



**Maider**rek urtarrilaren 27an 3 urte bete zituen. Aunitz urtez gure sorgintxoari eta mila muxu pottolo.







ga ge gi go gu
ikastola gara gu
LABIAGA
osatu zure ikasketak
za ze zi zo zu
espero zaitugu!!
AURREMATRIKULAZIO EPEA:
Otsailaren 1etik 8ra
BILERA EGUNAK:
Tantirumairu: otsailak 1, ostirala, 17:00etan
Labiaga: otsailak 1, ostirala,
17:00etan (euskaraz) | 18:30etan (gaztelaniaz)

# BORTZIRIETAN

Irakaskuntza publikoa

## AURREMATRIKULAZIO EPEA

**Haur eta Lehen Hezkuntza:** otsailaren 1etik 8ra
**DBH, Batxilergo eta LH:** datak zehaztear daude



IGANTZI: HERRI ESKOLA
T. 948 637 829



ARANTZA: HERRI ESKOLA
T. 948 634 104



BERA: RICARDO BAROJA E.P.
T. 948 625 019
www.ricardobarojaeskola.net



ETXALAR: LANDAGAIN ESKOLA
T. 948 635 215




BERA: TOKI ONA INSTITUTUA
T. 948 625 000
http://irati.pnte.cfnavarra.es/iestokiona/



LESAKA: IRAIN E.P.
T. 948 638 006
http://irati.pnte.cfnavarra.es/irain/

Gure herriko hizkuntza eta kultura bultzatuz
Doan - Integratzailea
Jantoki eta garraio zerbitzuarekin
Teknologi berriez baliatuta
Haur eta Lehen Hezkuntza herri eskoletan
DBH, Batxilergoak eta LH. bertako institutuan